



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

BEHAR SOZIALEI BURUZKO INKESTA 2014 PGDI POBREZIA-MODULUA

Emitza nagusiak

*Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistikarako
Organo Berezia*



0. Emaidza nagusien laburpena

Gizarte Zerbitzuen Eskaria-Behar Sozialei buruzko Inkesta 2014 delakoan Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren (PGDI-2014) modulu egokitu bat aplikatu da, eta horren emaitza nagusiak azaltzen dira dokumentu honetan, hain zuzen ere. Helburu nagusia zera da: Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) pobreziaren eta ongizate-gabeziaren adierazle desberdinak aztertzea, bereziki azpimarratuz Europar Batasunean (EB) erabiltzen direnak eta PGDI berariaz sartutakoak.

Txostenak kontuan hartzen ditu, gainera, biztanleen arteko baliabideen banaketari epe ertain edo luzean eragiten dieten egiturazko joera nagusiak, batez ere 2008-2014 epeari dagokionez. Era berean, pobrezia eta prekaritatea Euskadiko hiru lurraldeetan eta eskualdeetan nola banatzen den ere aztertzen da. Txostena irakurterazago egiteko, aldaketa nagusien¹ laburpen bat egin dugu hasierako kapitulu honetan.

PGDI 2014 modulu aplikatzearen emaitza nagusiak honela labur daitezke:

2012 eta 2014 urteen artean larriagotzen jarraitzen dute pobreziaren eta prekarietateren benetako egoera gehiago egotea eragiten duten faktoreak.

Arrisku egoera gehiago dago sarreraren dimentsioan (mantenua)

2012 eta 2014 urteen artean EAEko familia batzuen errenta-mailak okerrera egin du eta, ondorioz, mantenuko pobrezian egoteko eta mantenuko ongizate-gabezia edukitzeko arrisku-egoerak gehitu dira diru-sarrerarik ez dutelako². Pobrezian egoteko arriskuari dagokionez, PGDIren adierazleek erakusten dute 2008 eta 2014 urteen artean 2,5 puntu igo zela kaltetutako pertsonen kopurua; 2008. urtean %5,7 zen proportzio hori, 2012an %7,3 eta 2014an %8,2. Eurostaten medianaren %40ko adierazlearen arabera 1,8 puntuko igoera izan da; 2008an %40tik beherako sarrerak izan zituzten pertsonen %3,1ek, 2012an %3,5ek eta 2014an %4,9k.

¹ Jarraian ematen diren datuak familia-etxebizitzetako biztanleei buruzkoak dira. Beraz, ez dira kontuan hartu egoitza kolektiboetan bizi diren herritarrak eta etxerik ez dutenak (Euskadin modu iraunkorrean bizi diren kolektiboak edo kolektibo ibiltariak izanda ere).

² Mantenuko pobreziako eta prekarietateko arrisku-egoerak, edo sarrera-pobreziarenak, honako hauekin lotzen dira: familietan oinarritzko beharrei aurre egiteko sarrera nahikorik ez edukitzearekin (pobrezia) edo –adierarik zabalenean– EAEkoa bezalako gizarte batean espero den gutxieneko ongizate-mailari eusteko behar diren gastu-beharrei aurre egiteko sarrera nahikorik ez edukitzearekin (ongizate-gabezia).

PGDI ongizate-gabezia egoteko arriskua 5,5 puntu igo da: 2008an %16,4 zen, 2012an %19,9 eta 2014an %21,9³. EAEko sarreraren medianaren %60etik behera dauden pertsonen gaineko Eurostat tasa 3,7 puntu igo da: 2008an %14,8 zen eta 2012an %18,5. Pobrezia eta bazterkeria arriskuaren EBeko adierazle sintetikoak (AROE adierazleak) PGDI adierazleek jasotakotik hurbilago dagoen dinamika erakutsi du. AROPE tasaren arabera, bada, %17,9koa izan zen 2008an, %19,9koa 2012an eta %22,7koa 2014an. Tasa hori 4,8 puntu igo da⁴.

Epe luzerako bizi-baldintzei lotuta dauden pobrezia eta prekarietate kasu gehiago dago (metaketa).

Adierazleak 2012. urtean oraindik beherako joera izan arren, 2014. urtean metaketa-pobreziaren adierazleak gora egin zuen⁵. Tasa hori 1996-2004 urteetan %3,6 eta %4,2 izan zen, baina 2012an 2008ko %1,5ak erakutsi zuen beherako joerari eutsi zitzaion eta 2012 urte horretan %1,4ko gutxieneko tasa lortu zen. Hala ere, 2014. urtean %2raino igo da tasa, krisialdiarekin lotzen den lehenengo igoera beraz.

Oro har, metaketari lotutako ongizate-gabezia desberdinak eduki zituzten 2014. urtean biztanleen %20k; hots, pobreziaren adierazleak baino haustura handiagoa ikusten da iragan hurbilarekin. Pobrezia-tasa oso txikia izan zen oraindik 2014. urtean, 2004rekin alderatuta; baina kontrakoa gertatu da metaketari lotutako ongizate-gabezia dauden pertsonen proportzioarekin, aurreko hamarkadako erregistroak gainditu baitira: 2000. urtean %17,2 eta 2004an %19,4. Soilik geratu da 1996. urteko %25,3tik behera.

³ Pobrezia egoteko arriskua duten biztanleak ere sartzen dira tasa horietan.

⁴ Adierazle horietan, gainera, pobrezia egoteko arrisku-egoerekin batera (medianaren %60) lan-intentsitate txikia eta oinarritzko ondasun edo zerbitzu batzuen gabezia-egoerak ere jasotzen dira.

⁵ Metaketako pobrezia eta prekarietate egoerak honako hauekin daude lotuta: epe ertain eta luzera onargarriak diren bizi-baldintzak finkatzeko gaitasunik ez edukitzearekin, ezta ezohiko gastu-beharrei aurre egiteko edo sarrera-gabezia hornitzeko erreserbako ondare minimo bat edukitzeko gaitasun gabeziarekin ere. Etxebizitzetan falta diren instalazioak eta ekipamenduak, familien erreserbako ondarea eta ohiko beste ondasun edo zerbitzu batzuk (norberaren autoa, oporrak, etab.) edukitzeko aukera kontuan hartuta, PGDIk lau maila ezarri ditu metaketari lotutako pobrezia/ongizatea sailkatzeko: pobrezia, ongizate-gabezia, gutxieneko ongizatea eta erabateko ongizatea.



Ondorioz, 2012. urtean berriz gehitu dira pobrezia eta ongizate-gabezia benetako kasuak

Azaldutako prozesuek gorakada berria eragin zuten benetako pobrezia eta ongizate-gabezia egoeretan 2012 eta 2014 urteen artean⁶. Benetako pobrezia tasa gehitu egin da: 2008an %4,2 izan zen, 2012an %5,3 eta 2014an %5,9. Kaltetutako pertsonen kopurua ere gehitu zen: 2008an 89.706 kaltetu izan ziren baina 2014an 127.399, %42ko igoera izan da beraz.

Ongizate-gabezia tasa erreala gehitu egin da: 2008an %8,2 izan zen, 2012an %10,1 eta 2014an %11,5. %41,1 kaltetu gehiago egon da: 2008an 175.668 izan ziren eta 2014an 247.954.

2012-2014 urteen artean, krisiaren eraginez, 2008ra arte izandako aurrerapenak kolokan hasi ziren; PGDI egin zenetik lehenengo aldiz hasi ziren agertzen Euskadin mugikortasunaren beherako prozesu nabarmenak.

2014ko benetako pobrezia eta prekaritatearen tasak 1986 eta 1996 urteetako tasetatik urrun daude, baina 2000. urteko balioak gainditu dituzte: 2014an %5,9 eta 2000an %5,1 pobrezia adierazleari dagokionez; 2014an %11,5 eta 2000an %11 ongizate-gabezia adierazleari dagokionez.

Gizartean eta arlo ekonomikoan aldaketak izan direlako gertatu da hori; izan ere, PGDI egin zenetik lehenengo aldiz esan daiteke Euskadin gizarte-mugikortasunaren beherakada dela nagusi. Datu hori argi ikusten da ia ongizate osoa duten pertsonen pisu erlatiboaren beherakada nondik datorren aztertzean. Tarteko ezaugarriak dituzten eta erabateko ongizate oso urrun ez dauden pertsona horiek gero eta gehiago izan dira EAEko gizarte-egitura aurreko hamarkadaren erdialdera arte. Hau da, 1986. urtean %21,2 ziren eta 2004an %41,4. Azken urte horretatik aurrera kopuruak behera egin zuen: 2012an biztanleen %34,5 izan ziren eta 2014an %30,2.

Datu adierazgarriena hau da: 2004 eta 2012 urteen artean erabateko ongizatea duten biztanleen pisu erlatiboa %26,7tik %37,4ra igo izan zen aipatu beherakadaren funtsezko eragilea, baina 2012 eta 2014 urteen artean egoera aldatu egin zen. Biurteko horretan, ia ongizate osoa eduki zuten biztanleen pisu soziala %34,5etik %30,2ra (-4,3 puntu) murriztu zen eta, ondorioz, erabateko ongizatea zuten biztanleen kopurua 1,3 puntu igo zen. Biztanle kaltetuenen kopurua, aldiz, 3 puntu igo zen: 1,6 igo zen ongizate nagusi zuten baina arriskuren bat ere bazutenen kopurua, 0,8 pobrezia heldu gabe ongizate-gabezia zeuden kopurua eta 0,6 benetako pobrezia egoeran zeuden kopurua.

⁶ Benetako pobrezia eta ongizate-gabezia adierazleen bidez, fenomeno horiek duten benetako eraginera hurbildu nahi da, diru-sarreraren dimentsioan (mantenuko pobrezia edo prekarietatea) edo epe luzerako bizi-baldintzetan eta familien erreserbako ondarean (metaketako pobrezia edo prekarietatea) arrisku-faktoreak egoteaz haraindi. Benetako pobrezia/ongizatearen gaineko gaur egungo PGDI bost egoera bereizi ditu: pobrezia, ongizate-gabezia, arrisku-elementuak gehi ongizate-elementuak (ongizate nagusi izanik), ia ongizate osoa eta erabateko ongizatea.

Sarrereren banaketan desberdintasun handiagoak eman dira, eta fenomeno horrek prozesu kontrajarriak daudela erakusten du: biztanleen zati baten mugikortasunak behera egin du baina beste zati batenak erabateko ongizaterantz egin du

Euskadin 2012 eta 2014 urteetan izan zen beheranzko mugikortasun-prozesua bat dator krisia izan den urteetan emandako joera historikoarekin: erabateko ongizatea duten eta gabezia bat ere ez duten biztanleen pisu erlatiboak gora egin du.

Halaber, joera hori biztanleen sarrereren bilakaera desberdinari lotuta dago. 2014. urtean, biztanle bakoitzaren batez besteko sarrera arrunt garbiak 2008koak baino handiagoak izan dira gizarteko dirudunen %50aren artean; baina kaltetuena %50ak txikiagoak izan dituzte. 2008 eta 2014 urteen artean, biztanle bakoitzaren batez besteko sarrera arrunt garbiak %4tik gora murriztu ziren EAEko gizartean diru gutxien dutenen %30aren artean, eta %13,4raino iritsi zen beherakada hori EAEko pobreenen %10aren artean.

Bilakaera dibergente hori nabarmenagoa izan da 2012 eta 2014 urteen artean; PGDI egin zenetik lehenengo aldiz gehitu dira Euskadin desberdintasun-egoerak. GINI koefizienteak kontrako norabidea hartu zuen 2012 eta 2014 urteen arteko bilakaeran. 2012. urtera arte etengabe behera egin zuen: 1996. urtean 28,0 izan zen, 2008an 25,2 eta 2012an 25,3 arekin egonkortu egin zen. Baina 2014an 27,1era igo da, 2000. urtearen antzeko desberdintasun-maila erakutsiz.

Antzeko joera eman da biztanle aberatsenen %20aren sarrerak eta pobreenen %20aren sarrerak erlazionatzen dituen ratioari dagokionez. Kasu honetan, ratioa murriztu egin da: 1996an 4,2 eta 2008an 3,6. 2012. urtean pixka bat gora egin zuen, 3,7ra, eta 2014an igoera handiagoa izan da, 4,2ra helduz. 1996 eta 2000 urteen antzeko zifra eman da.

DBE/EPO/GLL sistemak oraindik eragin positiboa du: pobrezia-egoera larrienei aurrea hartzen die eta fenomenoaren gaineko pertzepzio subjektiboaren adierazleak maila baxuetan mantentzen laguntzen du

DBE/EPO/GLL prestazio-sistemak, alabaina, arestian aipatu beherako mugikortasun-prozesuak pobrezia kasu larrienak ez gehitzen laguntzen du. Haren ondorio positiboak hartuta, honako alderdiak nabarmendu behar dira:



- * EAEko diru-sarrerak bermatzeko sistema pobrezia-arriskuan egon ziren biztanleen %72,9raino heldu zen 2014. urtean⁷. Zifra hori 2012ko %72,6aren antzekoa izan da baina 2008ko %63,6 baino handiagoa.
- * Laguntzak eskuratzean 80.499 pertsona benetako pobreziatik irten da 2014. urtean, EAEko biztanleen %3,7 eta arriskuan dauden biztanleen %38,7. Hau da, %16,9 gehitu da kopuru hori 2012ko 68.884 pertsonekin alderatuta, eta %97 gehitu da 2008ko 40.858 pertsonekin alderatuta. Biztanleen %69,5ek ez dute haien familia pobre moduan ikusten.
- * Laguntzak eskuratu arren, benetako pobrezia egoeran egon diren 71.092 pertsona (2012an baino %10,4 gehiago eta 2008an baino %68,6 gehiago) ez dira pobreziatik irten eta DBE/EPO/GLL sistemari heldu diote. EAEko biztanle guztien %3,3 sartzen da multzo horretan, 2012an %3 izan zen eta 2008an %2. Dena den, pertsona hauen kasuan, sistemaren prestazioen bidez murriztu egiten da dituzten sarreren eta mantenuko pobrezia-mugaren arteko aldea %76tik %16,1era. DBE/EPO/GLL sistemako sarrerek kolektibo horren guztirako sarreretan duten pisua %71,4rainokoa da, hau da, 2012ko %70aren antzekoa baina 2008ko %56,4 baino handiagoa.

Errealitate hori, kasu askotan, oinarrizko beharrak beteta edukitzera hurbiltzen da. Horrela, adierazle hori 2008ko %61,3tik 2012ko %46,2ra murriztu ostean, 2014an aztertu diren pertsonen %65,1aren ustez haien sarrerak nahikoak dira familiek dituzten oinarrizko beharrak betetzeko behar den gutxienekoari aurre egiteko. Aztertutako biztanleen %69,9k ez dute uste haien familiak muturreko pobrezian daudenik; pobreak edo oso pobreak direla uste dute.

Sistemak bermatzen dituen babes-mailak hobetu egin dira eta, orduan, krisiari lotuta dauden eta biztanleen bizi-baldintzak okertzen dituzten prozesu sozial eta ekonomikoen ondorioak arindu dira. Inguruabar hori bereziki deigarria da 2012. urtearekin alderatuta gizarteak berak egiten dituen barne-transferentzien zenbatekoak murriztu direnean.

Oinarrizko beharrianak ez betetzeari buruzko adierazle asko hobetu dira

Politika horren ondorioek eta beste faktore batzuek (etxebizitza bat erosteko kostuaren murrizketa edo arriskuan zeuden biztanle batzuk -atzeritarrak batez ere- EAEtik joan izana) azaltzen dituzte 2014ko paradoxa batzuk, bereziki gabezia-adierazle batzuen beherakada, nahiz eta pobrezia-aren xede diren adierazleek gorako joera izan. Beharriari buruzko adierazleetan izan diren beherakada handien artean honakoak azpimarratu behar dira:

⁷ Arriskuan dagoen kolektiboaren barruan sartzen dira benetako pobrezian dauden biztanleak eta eskasia-egoeren ondorioz DBE/EPO/GLL sistemari heldu behar dioten biztanleak.

- * 2012an %16,7 eta 2014an %12,8 jaitsi ziren azken urtean oinarrizko gastuak murriztu behar izan dituzten familietako pertsonen proportzioak. 1996-2008 aldiko datuekin (%6,3tik %9,1era) alderatuta proportzio altuak dira oraindik.
- * 2012an %5,7 eta 2014an %4,7 jaitsi zen gaur egun oinarrizko gastuak bete ezin dituzten familietako biztanleen proportzioa. Argi ikusten da proportzio hori 2008ko %3,1etik gora dagoela, baina hala ere 2004 eta 2000 urteetako (%5,4 eta %6,9, hurrenez hurren) zifretatik behera geratu da.
- * 2012-2014 biurtekoan %2,1etik %1,2era jaitsi zen azken urteko momenturen batean gosea sentitu duten familietako biztanleen proportzioa. 2014ko adierazlea 2000ko %0,8aren eta 2008ko %1,3aren artean geratu da.
- * Hornidura (ura, argia, telefonoa, etab.) moztea dakarten egoeren kopurua murriztu egin da; 2012an %2,4 izan ziren eta 2014an %1,8. Azken hau 2008ko %1,6tik hurbil geratu da gainera.
- * Neurri bereziak hartu behar izan dituzten (%0,8tik %0,6ra) edo ondasunak enbargatu zaizkien (%0,8tik %0,5era) pertsonen proportzioa ere murriztu da 2012 eta 2014 urteen artean. Neurri bereziak dira, izan ere: jabetzak saltzea, etxebizitza edo ikastetxea aldatzea. Hala ere, %1etik beherako proportzioak izan arren, adierazle horiek erakusten dute kaltetuta dauden biztanleen kopuruak 2008aren aldean igoera handia izan duela. Enbargoei dagokienez, arazo larri horiek bizi izan dituzten pertsonen kopurua 2008koa baino %49,8 handiagoa izan da; jabetzaren salmentari edo etxebizitza nahiz ikastetxe aldaketari dagokienez %120,2 handiagoa.

Antzemandako hobekuntzekin batera, dena den, okertze prozesu oso agerikoa eman zen, alokairuak, kredituak, hipotekak edo ordainagiriak ordaindu ez dituzten edo horien ordainketa atzeratu zuten pertsonen dagokienez. Biztanleen %3k izan zuten arazo hori 1986 eta 2008 urteen artean, %5,9k 2012. urtean eta %6,2k 2014an. 2014. urtean 2008an baino %112,4 pertsona gehiago egon dira multzo horretan.

Ematen du aipatu okertzea biztanleek haien betebeharrak betetzeko hartu dituzten estrategiei lotzen zaiela nolabait; ez dute okerrerantz egin biztanleen kontsumoko sarreren eta gastuen arteko doikuntza adierazleek. EAEn inoiz ez dira oso zifra handiak eman zorpetzeko arriskuan, hau da, gastuak sarrerak baino handiagoak izan direnean: 2012an %2,1ekoa izan zen eta 2014an %1,7raino murriztu da. 2014ko adierazlea ez da gehiegi urrundu 2008ko %1,4ko kopurutik.



Egia esan, beharizanen oinarritzko adierazleen barruan 2008-2012 aldian nabarmen okerrerantz egin duen esparru bakarra hauxe izan da: hotza egiten duen urteko hilabeteetan etxea tenperatura egokian mantentzeko zailtasunak. Kasu horretan adierazleak igoera handia izan du: 2008an %4,1ekoa zen, 2012an %8,3koa eta 2014an %11koa. Arazo hori izan duten pertsonen kopurua %168,1 gehitu da 2008 eta 2014 urteen artean. Arazo horren intzidentzia, gainera, 1996. urteaz gero altuena izan da; eta krisia baino lehen 2004. urtean izan zuen goren puntua, %5,5arekin.

Pobreziari lotutako arazoek ez dute oraindik eragin handirik izan adierazle subjektiboetan, zifra objektiboek erakutsitakoaren arabera

EAEko diru-sarrerak bermatzeko politikaren eragin positiboaren inguruko joerek erakusten dute egoera ekonomikoa okertu arren benetako pobreziaren adierazle objektiboak pertzepzio sozialaren adierazleak baino handiagoak direla oraindik 2014an. Ildo horretan, PGDI adierazlearen arabera %5,9 pertsona benetako pobrezian daude, baina haien burua *pobre* edo *oso pobre* moduan daukaten EAEko familietako pertsonen proportzioa askoz txikiagoa da: %2,6, hau da, 2012ko %3ko zifra baino txikiagoa.

Hori gorabehera, egiturazko alderdi batzuek zalantzan jartzen dute babes sistemak etorkizunean izan dezakeen eragina

Disfuntzio garrantzitsu batzuk antzeman dira DBE/EPO/GLL sistemaren eraginean. Garrantzitsuena arriskuan dauden baina prestazio sistemari eutsi ezin dioten biztanleen kopurua da: 47.542 pertsona 2008an, 50.313 pertsona 2012an eta 56.307 pertsona 2014an. Arriskuan dauden familietako pertsona guztien %27,1 sartzen dira multzo horretan.

Baina datu kezagarriena da azken urteetan nabarmenagoa dela multzo horretako pertsonen arteko aldea, dituzten sarreraren eta mantenuko pobreziaren atalasearen arteko aldea, hain zuzen. 2008an %21,3koa izan zen alde hori, 2012an %24,9koa eta 2014an %30,5ekoa. Pertsona horietako gehienek soldata edo pentsio txikiak izaten dituzte; eta, beraz, DBE jasotzen duten biztanleekin alderatuta horien egoerak okerrera egin du.

Pobreziak eta prekarietateak sektoreka eta lurraldeka izan duten eraginari dagokionez hurrengoaz azpimarratu behar da: Arabako egoera okertzea eta okupaziorik eta lanik ez edukitzea pobreziaren eta ongizate-gabeziaren faktore erabakigarriak izan dira. Bestalde, haurren pobreziak gora egiten jarraitu du

Arabako gizarte-adierazleen okertzea

2012 eta 2014 urteen arteko datuak lurraldeka aztertzean ikusten den alderdi azpimarragarriena da 2008. urtera arte pobrezia eta prekarietate arazo gutxien izan zituzten lurraldeetan (Araba eta Gipuzkoa) pobrezia kasu gehiago agertu direla.

Arabak izan du bilakaera negatiboa; lurralde honetan benetako pobrezia gehitu egin da: 2008an biztanleen %4,1 izan zen egoera horretan, 2012an %5,6 eta 2014an %8,2. 2012 eta 2014 urteen artean gehikuntza horrek, gainera, gorakada handia izan du. Gipuzkoan gehikuntza txikiagoa eman da, tasa txikiagoa zuela ere kontuan hartuta. Kasu honetan tasa honela gehitu da: 2008an %2,5koa izan zen, 2012an %3,8koa eta 2014an %4,2koa. Bizkaiak 2008an pobrezia-tasa altuagoa izan zuen, baina arazoek gehikuntza askoz txikiagoa izan dute krisi garaian: 2008an benetako pobrezia-tasa %5,2 izan zen, 2012an %6,1 eta 2014an %6,4.

2012 eta 2014 urteen artean, beraz, pobrezia gehikuntza oso txikiak izan ditu Bizkaian eta Gipuzkoan baina nahiko handiak Araban. Bada, prozesu horren emaitza da azken lurralde honetan izan duela fenomenoak 2014. urtean eraginik handiena: %8,2ko eragina eta Bizkaian, historikoki eragin handiena izan duen lurraldean, %6,4koa, eta Gipuzkoan %4,2koa.

Benetako pobrezia-tasaren dinamikan antzemandako desberdintasunak benetako ongizate-gabeziaren tasan jasotakoen bidetik doaz. Araban %6,5 gehitu zen 2008an, %9,7 gehitu zen 2012an eta %15,3 gehitu zen 2014an. Bizkaian ere igo dira datu horiek baina neurri txikiagoan: 2008an %10,1 igo zen, 2012an %11,3 eta 2014an %12,8. Gipuzkoan 2008 eta 2012 urteen artean tasa horrek igoera handia izan zuen (%5,7tik %8,2ra), baina 2014an %7,7ra murriztu zen lurralde honetako tasa. Ondorioz, pobrezia-eragin gertatu bezala, 2014ko ongizate-gabeziaren tasarik altuena berriz eman da Araban.

Eskualdeetako datuak aztertzean ikusi da Gasteizeko eskualdeko egoerak nabarmen egin duela okerrera. 2014. urtean Bilboko eta Ezkerraldeko tasak baino altuagoak izan ditu eskualde horrek benetako pobrezia-tasaren eraginari dagokionez: %8,9 izan du eta besteetan %8,4 eta %6,5. Dena den, Bilbok eta Ezkerraldeak Gasteizek baino tasa altuagoak izan dituzte benetako pobrezia-tasari dagokionez, hau da, oro har pobrezia-tasaren errealitateetan larritasun maila altuagoa islatzen duen horri dagokionez: %3,5. Gasteizek, ordea, %1,3ko tasa izan du, EAEko batez besteko %2tik behera.

Benetako ongizate-gabeziaren tasak izan duen bilakaerak erakusten du Gasteizeko eskualdean egoerak okerrera egin duela: 2008an tasa hori %6,6 izan zen, 2012an %10,8 eta 2014an %15,9. Bilbok ere %15,9 tasa izan du 2014. urtean, baina haren ongizate-gabeziaren maila %14 ingurukoa izan zen 2008an eta 2012an. Antzeko zerbait gertatu da Ezkerraldean; hemen, benetako ongizate-gabeziaren tasa %11,8 gehitu zen 2008. urtean, %12,4 gehitu zen 2012an eta %14,1 gehitu zen 2014an.

2012 eta 2014 urteen artean egoera okerragoa izan duten beste bi eskualde ere badaude, Aiara eta Bizkaiko kostaldea. Lehenengo eskualdean, 2008 eta 2012 urteen artean %6,2tik %3,5era jaitsi zen ongizate-gabeziaren tasa baina bat-batean %11,3raino igo da. Bizkaiko kostaldean antzeko prozesua gertatu zen; tasak gora egin zuen: %5 eta %6 artean 2008 eta 2012 urteetan, eta %11,7 igo zen 2014an.



Pobreziaren eta okupazio eta lanik ez edukitzearen arteko erlazioa

Ikuspegi sintetikoa aintzat hartuta, benetako pobrezia-egoeren %64,3 izan dituzte 2014. urtean hiru familia-motak: EBetik kanpoko herrialdeetatik etorritako atzerritarren familiak (%33,1), lan egonkorrik ez duten 45 urtetik beherako pertsonen osatuta dauden familia-multzoak (%18,1) eta azken familia-multzo hauek baina lan egonkorrik ez duen titularrak 45 urtetik gorakoa denean (%13,2). Lehenengo bi familien pobrezia-tasa %20tik gorakoa izan da, lan egonkorrik ez duten adineko pertsonen osatutako familien tasa %9,3 izan da bakarrik.

Familia hauek benetako pobrezia-egoeretan duten pisua gehitu egin da: 2008an %52,4 zen, 2012an %61,4 eta 2014an %64,3. Lan egonkorrik ez duten pertsonen osatutako familia bietan eman dira gehikuntza handienak. Benetako pobrezia-egoerari egin dioten ekarpena gehitu egin da: 2008an %21,2, 2012an %25,3 eta 2014an %31,3.

2014. urtean, adin aktiboko pertsonen osatutako familia batzuetan ere izan da altua benetako pobrezia-tasa hori. Guraso bakarrik ama duten familiak izanik lan egonkorrik izan ez dutenen tasa %15etik gorakoa izan da, baita bakarrik dauden gizonak nahiz emakumeak izanik lan egonkorrik gabe dauden familien tasa ere, horiek 45 urtetik beherakoak edo gorakoak diren kontuan hartu gabe. Familia-mota horiek benetako pobrezia-egoeraren errealitatean %22,9 izan dira 2014an, eta kasu honetan nolabaiteko jarraitutasunarekin 2008 eta 2012ko datuekin alderatuta (%20,5 eta %20,8).

Ikusten denez, aztertutako familia-mota horiek 2014ko benetako pobrezia-egoera guztien %87,2 izan dira.

Korrelazio estua dago familia horien benetako pobrezia-egoeraren eta benetako ongizate-gabeziako egoera orokorretan duten parte hartze handiaren artean. Hala ere, datu hori oro har pixka bat txikiagoa izan da. 2014. urtean %24,2 EBetik kanpoko herrialdeetako pertsonen osatutako familiak ziren, %26,8 lan egonkorrik ez duten pertsonen osatutako familiak eta %19,3 arrisku handieneko gainerako familiak (guraso bakarreko eta bakarrik dauden pertsonen familiak, adin aktiboan egon arren lan egonkorrik ez dutenak). Familia-mota horiek guztiak ongizate-gabezia-egoeraren %70,3 izan dira.

Prekarietate-errealitate desberdinetan agerpen txikiagoa duten beste kolektibo batzuen ekarpena handiagoa izan da. 2014. urtean, benetako ongizate-gabeziako egoera orokorren %12,6 lan egonkorrik eduki duten pertsonen osatutako familiek bizi izan dute, eta %12,1 65 urtetik gorako pertsonak (gizonak nahiz emakumeak) buru dituzten familiek bizi izan dute.

Langabeziak benetako pobrezia-egoeretan izan duen garrantzia azpimarratu behar da. Oro har, gutxienez familiako kide aktiboetako bat langabezia-egoeretan duten familien %43,1ek bizi izan zuen benetako pobrezia 2008. urtean; 2012an %65,6k eta 2014. urtean %72,8. Datu horien arabera, familietan gero eta lotuago daude pobrezia eta langabezia-mota desberdinak.

Haurren pobrezia gero eta sarriago ematen da eta pobrezia gero eta eragin handiagoa du seme-alabak dituzten familietan

2012 eta 2014 urteen artean, 14 urtetik beherako adingabeen artean eman diren benetako pobrezia kasuak gainerako biztanleen kasuan baino azkarrago gehitu dira. 14 urtetik gorako biztanleen pobrezia-tasa 1,4 puntu gehitu da 2008 eta 2014 urteen artean, %3,7tik %5,1era igaroz. Baina 14 urtetik beherako biztanleen tasa 3,9 puntu gehitu da. Azken tasa hau gehitu egin da: 2008an %7,3ko tasa izan zen, 2012an %9,5ekoa eta 2014an %11,2koa. Hau da, 14 urtetik gorako biztanleen tasa halako bi baino gehiago izan da azkenean. 2008 eta 2012 urteetan %24tik hurbil ibili diren tasak eduki ostean, benetako pobrezia bizi izan duten familia guztien artean 14 urtetik beherako biztanleen multzoa %25,7 izan da.

Azpirarratzeko datu bat dugu: 2012 eta 2014 urteen artean benetako pobrezia kasuak gorakada handia izan dute seme-alabak dituzten familien artean. Benetako pobrezia kasuak %3,7tik %5,5era igo dira multzo horretan; hots, 2008 urteaz gero (%3,3 urte horretan) kasuen kopuruak gora egin du. 2014. urtean Euskadin benetako pobrezia-egoeran dauden familia guztien %51,9 aipatu familiak dira. Alabaina, proportzioa %75,5era heltzen da guraso bakarreko familiak kontuan hartzen badira.

Azken urteetan EAEko pobrezia-aren eta desberdintasunaren adierazleak okerrera egin duten arren Euskadik izan du fenomeno horien eragin txikiena Europako herrialdeak kontuan hartuz gero

Krisiak Europako hegoaldeko herrialdeetan izan duen eraginaren ondorioz Euskadik askoz posizio txarragoa lortu du Europako pobrezia eta prekarietatea konparatzen dituzten adierazleei dagokienez. 2014. urtean, pobrezia larriaren eta pobrezia erlatiboaren tasak (sarreraren medianaren %40 eta %60) Euskadin gutxienez %30 altuagoak izan dira hurrengo herrialdeetan baino: Beneluxeko herrialdeak (Belgika, Herbehereak eta Luxemburg), Iparraldeko herrialdeak (Danimarka, Suedia eta Finlandia), Austria eta Alemania baita Frantzia ere. Pobrezia erlatiboaren tasa are altuagoa izan da EAEn EB-28n baino (%18,5 eta %16,7 hurrenez hurren).

Dena den, egoera hobea duten herrialdeak aldentzen joan arren, pobrezia eta bazterkeria arriskua neurtzen duen AROPE adierazlea Europar Batasuneko batez besteko zifretatik behera mantendu da EAEn. Horrela, 2014. urtean, 2013ko Europar Batasunaren (%23 EB-15ean) %24,5etik ia bi puntu beherago geratu zen Euskadiko %22,7.

Pobrezia larriaren adierazleari dagokionez (medianaren %40), EAEko tasa berriz geratu da EB-28ko eta EB-15eko zifretatik behera (EAEn 4,9, eta beste bietan %5,7 eta %5,5). Desberdintasun-egoerei lotuta dago errealitate hori; izan ere, nahiz eta desberdintasun kasuak 2008az gero gehiago izan Euskadin EBeko maila orokorretatik behera geratu da. EAEko GINI koefizientea (%27,1) EB-28ren (%30,5) eta EB-15en (%30,4) adierazleak baino ia 3,5 puntu beherago geratu da.



Beste alde batetik, aipatu adierazle guztietan EAEn errealitatea Europako hegoaldeko herrialdeena baino hobea izaten jarraitzen du; pobrezia larriaren eta pobrezia erlatiboaren tasak txikiagoak dira Euskadin. EAEn desberdintasun askoz gutxiago daudelako eman dira alde horiek. Adibidez, biztanle aberatsenen %20k biztanle pobreenen %20k baino sarrera 4,2 aldiz handiagoak dituzte, baina zifra hori 5,7 da Italian eta 6,3 Espainian. EAEn biztanle pobreenen %10ek sarreraren %3,4 dute; baina proportzio hori %2,2 besterik ez da Italian eta %1,9 Espainian, azken hau Europar Batasuneko estatuen arteko zifra txikiena.



1. Pobreziaren eta prekarietatearen eragin orokorra

1.1. Pobrezia eta prekarietatea mantenu-alarrean (errenta erabilgarria)

1.1.1. Pobrezia eta prekarietatea mantenu-alarrean (errenta erabilgarria)

1.1.1.1. Eurostat adierazleak

* 2008 eta 2014 urteen artean %14,8tik %18,5era igo da EAeko sarreren medianaren %60tik behera bizi ziren pertsonen kopurua. Ildo berean, sarreren medianaren %40etik behera bizi ziren pertsonen kopurua %3,1etik %4,9ra igo da. Bi kasu horietan, dena den, 1986. urteaz gero PGDI jasotako arrisku-maila altuenak izan dira 2014. urtean.

Aztertutako aldi horretan, pobrezia larrian (medianaren %40 baino gutxiago) egoteko arriskua duten biztanleen kopurua %57,7 igo da; 2008an 66.540 pertsona egon ziren egoera horretan eta 2014an 104.942 (38.402 gehiago). Pobrezia erlatiboan (medianaren %60 baino gutxiago) egoteko arriskua duten biztanleen kopurua %25,6 igo da; 2008an 318.161 pertsona zeuden egoera horretan eta 2014an 399.643 (81.482 gehiago).

Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arriskuaren bilakaera. Eurostat adierazleak. 1986-2014
Familia-etxebizitzetan bizi direnak
(Datu absolutuak)

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
Diru-sarrera txikiak / Pobrezia erlatiboaren arriskua (Medianaren < 60%)	296.266	348.547	354.066	343.459	318.161	333.986	399.643	19,7	25,6
Pobrezia-arrisku larria (Medianaren < 40%)	69.578	79.643	98.938	77.428	66.540	75.166	104.942	39,6	57,7

(Intzidentzia %-tan)

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
Diru-sarrera txikiak / Pobrezia erlatiboaren arriskua (Medianaren < 60%)	13,9	16,4	17,1	16,5	14,8	15,4	18,5	3,1	3,7
Pobrezia-arrisku larria (Medianaren < 40%)	3,3	3,8	4,8	3,7	3,1	3,5	4,9	1,4	1,8

Iturria: GEABA 1986, PGDI 1996-2012 eta GZE-BSI 2014

Oharra: Diru-sarrera txikien/pobrezia erlatiboaren adierazleak pobrezia-arrisku larria duen taldea barne hartzen du.

Datu absolutuen atalean, bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2014an kaltetuta egon diren pertsonen kopuruaren eta 2008an eta 2012an, hurrenez hurren, egondakoen kopuruaren arteko aldaketa (%).

Intzidentziaren atalean(%tan), bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2014 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

1986ko datuak gutxi gorabeherakoak dira.

Igoera handiena 2012-2014 aldian gertatu da. Izan ere, 2008 eta 2014 urteen artean pobrezia erlatiboan egoteko arriskua zuten biztanle kopuruaren igoeraren %80,6 2012-2014 biurtekoan eman da; eta pobrezia larriaren egoteko arriskua duten biztanleen kopuruari dagokionez %77,5.

- * 2008 eta 2014 urteen artean, pobrezia eta bazterkeria arriskuaren AROPE adierazlea %17,9tik %22,7ra igo da. Arriskuan dauden biztanleen kopurua %27,1 igo da: 2008an 385.087 pertsona zeuden arriskuan eta 2014an 489.447 (104.360 gehiago). AROPE adierazleak ere aurkitu du arazoaren igoera handiena 2012-2014 aldian; dena den, biurteko horretan arriskuan egoteko kasu berrien kopurua txikiagoa izan da (%54,4). Adierazleek medianaren %40 eta %60ko -0,4 eta 0,6 puntu- gutxienera igoera jasotzen zutenean AROPE tasak dagoeneko antzeman zuten pobrezia eta bazterkeria arriskuko tasak igoera handia izango zutela 2008 eta 2012 urteen artean (%17,9 eta %19,9 artekoa).

Sarrearen dimentsioko arriskuaren adierazleekin gertatu bezala, informazio hori dagoenetik (2000. urtea EAerako), pobrezia eta bazterkeria arriskuaren AROPE tasak 2014. urtean izan du mailarik altuena; aurreko maximoak %19,9koak izan ziren 2000an eta 2012an.

Pobrezia- eta bazterkeria-adierazleen bilakaera. AROPE adierazleak. 2000-2014
Familia-etxebizitzetan bizi direnak
(Datu absolutuak)

Adierazleak	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
Laneko intentsitate baxua	121.331	118.851	103.994	179.079	217.062	21,2	108,7
Diru-sarrera txikiak / pobrezia erlatiboaren arriskua	354.066	343.459	318.161	333.986	399.643	19,7	25,6
Gabetzea	41.663	74.556	58.487	125.549	112.856	-10,1	93,0
Pobrezia eta bazterkeriaren AROPE adierazlea	411.210	407.800	385.087	432.655	489.447	13,1	27,1

(Intzidentzia %-tan)

Adierazleak	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
Laneko intentsitate baxua	6,6	6,4	5,6	9,9	12,0	2,1	6,3
Diru-sarrera txikiak / pobrezia erlatiboaren arriskua	17,1	16,5	14,8	15,4	18,5	3,1	3,7
Gabetzea	2,0	3,6	2,7	5,8	5,2	-0,6	2,5
Pobrezia eta bazterkeriaren AROPE adierazlea	19,9	19,6	17,9	19,9	22,7	2,8	4,8

Iturria: PGDI, 2000-2012 eta GZE-BSI 2014

Oharrak: Laneko intentsitate txikiari buruzko adierazlea ikasleak ez diren 20 eta 59 urteko biztanleak oinarritzat hartuta kalkulatu da.

Datu absolutuen atalean, bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2014an kaltetuta egon diren pertsonen kopuruaren eta 2008an eta 2012an, hurrenez hurren, egondakoen kopuruaren arteko aldaketa (%).

Intzidentziaren atalean(%tan), bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2014 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

Gabezia materialaren adierazlean ikusi den beherakada, zati batean, 2014an AROPE metodoa zorrotz aplikatzeari lotuta dago. 2012. urtera arte PGDIren irizpide historikoak erabili dira, zorrotzagoak zirenak (adibidez, 2012. urtera arte gabeziatzat hartzen zen auto bat ezin erosi izatea, AROPE metodoak ere jasotzen duena, baina baita 10 urte baino gutxiago duen auto bat ezin erosi izatea ere).



1.1.1.2. PGDI adierazleak

1986an gero Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan (PGDI metodoan) garatu zen hurbilketa metodologiko propioa kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko mantenuko (edo sarrearen) pobrezia arriskua %8,2 izan da 2014an, hau da, 176.532 pertsona. Ongizate-gabezia egoteko arriskua, bestalde, %21,9 igo da; arazoak dituzten 473.260 pertsona sartzen dira multzo horretan.

PGDI adierazleen arabera, 2008 eta 2014 urteen artean pobrezia eta prekarietateak igoera handia izan dute. Pobrezia arriskuaren tasa 2,5 puntu igo da aldi horretan; 2004an eta 2008an %5,6 eta %5,7 izan baziren ere 2012an %7,3 eta 2014an %8,2 izan ziren. Hamartar batzuen aldearekin, tasak 2000. urteko %7,9 ere gainditu du, eta bakarrik geratu da 1986 eta 1996 urteetako %10etik gorako zifretatik behera.

2008. urtean 121.875 pertsona egon ziren mantenuko pobrezia arriskuan eta 176.532 egon dira 2014. urtean (54.657 gehiago, %44,8ko igoera beraz). Eurostaten adierazleek jasotakoa gorabehera, kasu honetan 2012-2014 aldiari lotutako igoera hori soilik izan da 2008az gero izan diren arrisku egoera berrien %34,5.

Pobrezia- eta ongizate-gabezia-arriskuaren bilakaera. PGDI adierazleak. 1986-2014 Familia-etxebizitzetan bizi direnak (Datu absolutuak)

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
Ongizate-gabezia-arriskua	1.263.504	769.433	512.359	455.703	352.550	432.936	473.260	9,3	34,2
Pobrezia-arriskua	248.661	282.495	163.084	116.499	121.875	157.686	176.532	12,0	44,8

(Intzidentzia %-tan)

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
Ongizate-gabezia-arriskua	59,3	36,3	24,7	21,9	16,4	19,9	21,9	2,0	5,5
Pobrezia-arriskua	11,7	13,3	7,9	5,6	5,7	7,3	8,2	0,9	2,5

Iturria: GEABA 1986, PGDI 1996-2012 eta GZE-BSI 2014

Oharra: Ongizate-gabezia-adierazleak bere baitan hartzen du pobrezia-arriskuan dagoen taldea.

Datu absolutuen atalean, bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2014an kaltetuta egon diren pertsonen kopuruaren eta 2008an eta 2012an, hurrenez hurren, egondakoen kopuruaren arteko aldaketa (%).

Intzidentziaren atalean(%tan), bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2014 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

Beste alde batetik, ongizate-gabeziaren tasa ere igo da: 2008an %16,4 izan zen, 2012an %19,9 eta 2014an %21,9. Arriskuan zeuden pertsonak 352.550 izan ziren 2008an eta 473.260 izan ziren 2014an; hau da, 120.710 pertsona gehiago egon zen arriskuan (+%34,2). Ongizate-gabezia arazoaren eragin erlatiboa 2004. urteko mailan geratu da berriz (%21,9). 2000. urteko %24,7tik beherakoa izan zen argi eta gardi, baita 90. hamarkadako %35etik gorako kopuruetatik ere.

1.1.2 Gabeziaren adierazleak

- * Aztertu diren adierazle sintetikoekin bat etorriz, gabezia materialaren adierazleak aztertzean azpimarratu behar da 2008. urteaz gero biztanleen bizi-baldintzek okerrera egin zutela; EAEko biztanleen kopuru garrantzitsu eta gero eta handiago batek arazoak izan ditu ongizatea edukitzeko baldintzatzaileei aurre egiteko.

Alabaina, ongizate-gabeziaren egoera orokorren azterketari lotuen dauden adierazleetan ez da alde handirik eman adierazle nagusien artean⁸. Adibidez, arazo ekonomikoak direla medio astebeteko oporraldirik hartu ezin duten pertsonen kopurua gero eta handiagoa den arren igoera hau pixkanaka eman da. 2008. urtean %20,3 igo zen kopuru hori, 2012an %21,1 eta 2014an %22,6; beraz, 2014. urte honetan 2008an baino %11,8 pertsona gehiago egon zen egoera horretan.

Eta 800 euro inguruko ustekabeko gastua ordaindu ezin dutela adierazi duten familiekin gauza bera gertatu da. 2012 eta 2014 urteen artean %21,9tik %22,5era igo da kopuru hori.

- * 2008-2014 aldian izan den okerragotzea are nabarmenagoa izan da oinarrizko beharrak betetzearekin eta pobrezia gainditzearekin lotuago dauden adierazleetan. 2008 eta 2012 urteen artean hauxe izan zen daturik deigarriena: azken urtean oinarrizko gastuak murriztu behar izan dituzten pertsonen kopurua %8,1etik %16,7ra igo da. 2014an kopuru hori %12,8ra murriztu da, baina beste batzuekin alderatuta kopuru altua izan da: 1996-2008 aldian %6,3tik %9,1erakoa izan zen.

Gabezia izan dutenen kopurua 2014an 2008an baino handiagoa izan da, baina 2012koa baino pixka bat txikiagoa; bada, joera hori bera eman da oinarrizko beharrezan betetzeko arazo larriak dituztenen jarraipenari lotutako beste adierazle batzuetan. Gaur egun oinarrizko gastuak ordaindu ezin dituztela esaten duten pertsonen dagokienez, esaterako, ikusi da 2014. urtean EAEko %4,7 izan direla, 2008ko %3,1 baino ia 1,6 puntu gehiago, eta egoera horretan dauden pertsonen kopurua %53,6 igo dela. Kopuru hori 2012ko %5,7 baino txikiagoa izan zen, baita 2004 eta 2000 urteetako kopurua (%5,4 eta %6,9, hurrenez hurren) baino txikiagoa ere.

⁸ PGDIk baino helburu handiagoak biltzen dituen eragiketan sartu denez, GZEE-BSIren PGDI modulua aplikatzeko batez ere pobrezia azterketari lotutako gabeziaren adierazleak hartu dira kontuan. Horrenbestez, PGDI baino informazio gutxiago ematen da ongizate-gabezia arazoei lotutako dimentsioari buruz.



Biztanleek 2014. urtean oinarrizko beharrak betetzeko izan dituzten zailtasunak, horien alderdi zehatzak, aztertuta ondokoa ikusi da: biztanleen %6,4k esan dute arazo ekonomikoak direla medio bigarren eskuko jantziak erabili dituztela; kopuru hori 2008ko %3,7 baino handiagoa izan da nabarmen, baina berriz maximoa 2012ko %7,1 izan da. Baina, hori gorabehera, egoera horretan egon diren pertsonen kopurua 2008koa baino %74,1 handiagoa izan da. Kaltetutako pertsonen kopuru hori 1996an eta 2008an erregistratu ziren zifrak (%3,7 eta %5,8) gainditzen dituzte.

Bestalde, azken urtean PGDIIn aztertzen den (FSS eskala) elikadurari lotutako segurtasun-faltaren bat izan dutela esan duten biztanleen kopurua 2012ko balioetan mantendu da 2014. urte horretan, %7,5ean, urte horretako %7,7aren antzekoa baita. Adierazlea 2000-2008 aldikoa baino handiagoa izan da, eta maximoa 2008. urtean eman zen %5,7arekin. Azken urte horri dagokionez, 2014. urtean %33,5etik gorakoa izan da elikadurari lotutako segurtasun-falta izan duten pertsonen kopurua.

Baina, era berean, 2012. urtearekin alderatuta hobekuntzak ere izan dira dimentsio honetan. Azken urtean murriztu egin da uneren batean gosea sentitu duen pertsona kopurua: %2,1etik %1,2ra. Kaltetutako pertsonen kopurua 2008koa baino %21,5 handiagoa den arren, balio erlatiboetan %1,2 hori adierazleak 2000 eta 2008 urteen artean izan zituen balioen (%0,8 eta %1,3) artean geratu da.

Aurrekoari lotuta, 2012 eta 2014 urteen artean murriztu egin da bi egunik behin proteina-janari bat jan ezin duten pertsonen kopurua. Aldi horretan %3,6tik %3,1era murriztu da kopurua; eta 2014ko adierazlea soilik geratu da 2008ko %2,3tik gora 2004az geroko aldi⁹.

2008-2012 aldi nabarmen okerrerantz egin duen esparru bakarra hauxe izan da: hotza egiten duen urteko hilabeteetan etxea tenperatura egokian mantentzeko zailtasunak. Kasu horretan adierazleak igoera handia izan du: 2008an %4,1ekoa zen, 2012an %8,3koa eta 2014an %11koa.¹⁰ Arazo hori izan duten pertsonen kopurua %168,1 gehitu da 2008 eta 2012 urteen artean. Arazo horren intzidentzia, gainera, 1996-2012 aldiko altuena izan da; eta krisia baino lehen 2004. urtean izan zuen goren puntua, %5,5arekin.

⁹ Dena den, adierazle horretan 2014ko egoera hartzen da kontuan, eta 2012ra arte aplikatzen da azken hamabi hilabeteetan izandako errealitatearen arabera.

¹⁰ Galdera egiteko modua aldatuz gero datua handiagoa izan daiteke; beraz, 2014. urtean EINak erabilitako galdera orokorra aplikatu da. Etxean tenperatura egokia mantentzeko zailtasunei buruzko galdera egin da oraingoan, eta PGDIIn normalean beti galdetu da neguko hilabeteetan zuten hotzari buruz zein pertzepzio duten.

- * Elikadurari lotutako segurtasun-faltaren kasu larriekin gertatzen zen bezala, 2012 eta 2014 urteen artean ere egon dira hobekuntza nabarmenak prekarietatearen eta pobrezia ekonomikoaren kasu larriekin lotzen diren adierazle batzuetan.

Hobekuntzarik azpimarragarriena hau da: hornidura (ura, argia, telefonoa, etab.) moztea dakarten egoeren kopurua murriztu egin da; 2012an %2,4 izan ziren eta 2014an %1,8. Azken hau 2008ko %1,6tik hurbil geratu da gainera. Azken urtean arazo hori izan duten pertsonen kopurua urte horretakoa baino %8,7 handiagoa izan da.

Neurri bereziak hartu behar izan dituzten (%0,8tik %0,6ra) edo ondasunak enbargatu zaizkien (%0,8tik %0,5era) pertsonen proportzioa ere murriztu da 2012 eta 2014 urteen artean. Neurri bereziak dira, izan ere: jabetzak saltzea, etxebizitza edo ikastetxea aldatzea. Hala ere, %1etik beherako proportzioak izan arren, adierazle horiek erakusten dute kaltetuta dauden biztanleen kopuruak 2008aren aldean igoera handia izan duela. Enbargoei dagokienez, arazo larri horiek bizi izan dituzten pertsonen kopurua 2008koa baino %49,8 handiagoa izan da; jabetzaren salmentari edo etxebizitza nahiz ikastetxe aldatetari dagokienez %120,2 handiagoa.

2012 eta 2014 urteen artean antzemandako hobekuntzekin batera, dena den, okertze prozesu oso agerikoa eman zen, alokairuak, kredituak, hipotekak edo ordainagiriak ordaindu ez dituzten edo horien ordainketa atzeratu zuten pertsonen dagokienez. Biztanleen %3k izan zuten arazo hori 1986 eta 2008 urteen artean, %5,9k 2012. urtean eta %6,2k 2014an. 2014. urtean 2008an baino %112,4 pertsona gehiago egon dira multzo horretan.

Ematen du aipatu okertzea biztanleek haien betebeharrak betetzeko hartu dituzten estrategiei lotzen zaiela nolabait; ez dute okerrerantz egin biztanleen kontsumoko sarreraren eta gastuen arteko doikuntza adierazleek. EAEn inoiz ez dira oso zifra handiak eman zorpetzeko arriskuan, hau da, gastuak sarrerak baino handiagoak izan direnean: 2012an %2,1ekoa izan zen eta 2014an %1,7raino murriztu da. 2008. urtearekin alderatuta %22,4 pertsona gehiago egon dira egoera horretan; hala ere, 2014ko adierazlea ez da geratu urte horretako %1,4tik oso urrun.



Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera, mantenuari/diru-sarrerei dagokienez (pobrezia-adierazleak). 1986-2014

Datu absolutuak

Familia-etxebizitzetan bizi direnak

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
Oinarrizko gastuak murrizteko beharra	612.756	148.234	130.717	190.353	174.145	362.989	275.901	-24,0	58,4
Gaur egun ez ditu oinarrizko gastuak estaltzen	DE	77.352	142.624	113.541	66.241	124.608	101.776	-18,3	53,6
Elikagaiak eskuratzeko arazoak									
FSS adierazleak									
Elikadura-arazo larriak	DE	DE	49.782	52.493	75.915	100.980	99.415	-1,5	31,0
Elikadura-arazo oso larriak	DE	DE	22.369	56.373	46.084	67.144	63.396	-5,6	37,6
- Gosez egon diren etxekoen unitateetan	DE	DE	17.289	26.477	21.271	46.122	25.834	-44,0	21,5
Segurtasunik ezaren arazoak guztira FSS	DE	DE	72.151	108.866	121.999	168.124	162.811	-3,2	33,5
EU-SILC adierazleak									
Gutxienez bi egunean behin proteinarik jateko aukerarik ez	DE	DE	DE	70.687	49.845	78.038	66.503	-14,8	33,4
Arazoak ohiko betebeharrak eta gastuak estaltzeko									
Ez-ordaintzeak edo atzerapenak (alokairuak, kredituak, hipotekak, ordainagiriak, etab.)	54.803	42.948	48.606	55.769	63.411	127.589	134.673	5,6	112,4
Hornidura-mozketak (ura, argia, telefonoa, etab.)	55.156	17.209	21.953	23.940	35.191	52.413	38.255	-27,0	8,7
Ondasunak enbargatzea	DE	3.801	12.680	7.284	7.130	17.270	10.679	-38,2	49,8
Ondasunak saltzea, etxebizitza- edo eskola-aldaketa	72.906	12.587	13.387	11.072	5.426	16.700	11.946	-28,5	120,2
Bizirautearekin lotutako beste arazo batzuk									
Bigarren eskuko jantziak erabiltzea	DE	108.286	75.644	121.820	79.657	153.965	138.701	-9,9	74,1
Neguan tenperatura egikoa mantentzeko arazoak	DE	88.668	110.669	113.664	88.611	180.210	237.526	31,8	168,1

Iturria: GEABA 1986, PGDI 1996-2012 eta GZE-BSI 2014

Oharra: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2014an kaltetuta egon diren pertsonen kopuruaren eta 2008an eta 2012an, hurrenez hurren, egondakoen kopuruaren arteko aldaketa (%).

Gaur egun ez ditu oinarrizko gastuak estaltzen adierazlea eta bi egunik behin proteinadun jatordu bat eskuratzeari buruzko galdera alde batera utzita, gainerako kasuetan inguruabarrak inkesta egin aurreko urteko momenturen batean gertatu diren jasotzen du adierazleak.

Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera, mantenuari/diru-sarrerei dagokienez (pobrezia-adierazleak). 1986-2014

Intzidentzia %-tan

Familia-etxebizitzetan bizi direnak

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
Oinarrizko gastuak murrizteko beharra	28,8	7,0	6,3	9,1	8,1	16,7	12,8	-3,9	4,7
Gaur egun ez ditu oinarrizko gastuak estaltzen	DE	3,6	6,9	5,4	3,1	5,7	4,7	-1,0	1,6
Elikagaiak eskuratzeko arazoak									
FSS adierazleak									
Elikadura-arazo larriak	DE	DE	2,4	2,5	3,5	4,7	4,6	0,0	1,1
Elikadura-arazo oso larriak	DE	DE	1,1	2,7	2,1	3,1	2,9	-0,2	0,8
- Gosez egon diren etzekoen unitateetan	DE	DE	0,8	1,3	1,0	2,1	1,2	-0,9	0,2
Segurtasunik ezaren arazoak guztira FSS	DE	DE	3,5	5,2	5,7	7,7	7,5	-0,2	1,9
EU-SILC adierazleak									
Gutxienez bi egunean behin proteinarik jateko aukerarik ez	DE	DE	DE	3,4	2,3	3,6	3,1	-0,5	0,8
Arazoak ohiko betebeharrak eta gastuak estaltzeko									
Ez-ordaintzeak edo atzerapenak (alokairuak, kredituak, hipotekak, ordainagiriak, etab.)	2,6	2,0	2,3	2,7	2,9	5,9	6,2	0,4	3,3
Hornidura-mozketak (ura, argia, telefonoa, etab.)	2,6	0,8	1,1	1,1	1,6	2,4	1,8	-0,6	0,1
Ondasunak enbargatzea	0,0	0,2	0,6	0,3	0,3	0,8	0,5	-0,3	0,2
Ondasunak saltzea, etxebizitza- edo eskola-aldaketa	3,4	0,6	0,6	0,5	0,3	0,8	0,6	-0,2	0,3
Bizirautearekin lotutako beste arazo batzuk									
Bigarren eskuko jantziak erabiltzea	DE	5,1	3,7	5,8	3,7	7,1	6,4	-0,7	2,7
Neguan tenperatura egikoa mantentzeko arazoak	DE	4,2	5,3	5,5	4,1	8,3	11,0	2,7	6,9

Iturria: GEABA 1986, PGDI 1996-2012 eta GZE-BSI 2014

Oharra: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2014 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

Gaur egun ez ditu oinarrizko gastuak estaltzen adierazlea eta bi egunik behin proteinadun jatordu bat eskuratzeari buruzko galdera alde batera utzita, gainerako kasuetan inguruabarrak inkesta egin aurreko urteko momenturen batean gertatu diren jasotzen du adierazleak.



Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera, mantenuari/diru-sarrerei dagokienez (ongizate-gabeziaren eta zorpetze-arriskuaren adierazleak). 1996-2014

Datu absolutuak

Familia-etxebizitzetan bizi direnak

Adierazleak	1996	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
Arazo ekonomikoak direla-eta ezin dute oporraldirik egin (astebete behingoz)	589.745	401.184	411.281	436.551	457.864	488.082	6,6	11,8
Ezin diete aurreikusi gabeko gastuei aurre egin	DE	DE	823.150	748.792	475.913	486.136	2,1	
Zorpetze-arriskua	33.468	22.233	27.172	30.013	46.359	36.750	-20,7	22,4

Iturria: PGDI, 1996-2012 eta GZE-BSI 2014

Oharra: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2014an kaltetuta egon diren pertsonen kopuruaren eta 2008an eta 2012an, hurrenez hurren, egondakoen kopuruaren arteko aldaketa (%).

Ustekabeko gastuei aurre egiteko gaitasuna jasotzen duen datuak zenbateko jakin baten erreferentziaren eragina du 2012tik aurrera.

Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera, mantenuari/diru-sarrerei dagokienez (ongizate-gabeziaren eta zorpetze-arriskuaren adierazleak). 1996-2014

Intzidentzia %-tan

Familia-etxebizitzetan bizi direnak

Adierazleak	1996	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
Arazo ekonomikoak direla-eta ezin dute oporraldirik egin (astebete behingoz)	27,8	19,4	19,7	20,3	21,1	22,6	1,5	2,3
Ezin diete aurreikusi gabeko gastuei aurre egin	DE	DE	39,5	34,8	21,9	22,5	0,6	
Zorpetze-arriskua	1,6	1,1	1,3	1,4	2,1	1,7	-0,4	0,3

Iturria: PGDI, 1996-2012 eta GZE-BSI 2014

Oharra: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2014 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

Ustekabeko gastuei aurre egiteko gaitasuna jasotzen duen datuak zenbateko jakin baten erreferentziaren eragina du 2012tik aurrera.

1.1.3. Tartearen eta desberdintasunaren PGDI adierazleak

PGDI metodoan, pobrezia eta ongizate-gabezia arriskuaren intzidentzia-tasarako indize osagarriak ematen dira. Izan ere, erabilgarri dauden baliabideen eta ezarritako pobrezia- eta ongizate-gabezia-atalaseen arteko tarteari lotutakoak (Sen indizea) aztertzen dira, baita beste indize konplexuagoak ere (FGT izenekoak), erreferentziako atalaseetarako tartea eta arriskuan dauden kolektiboen arteko barne-desberdintasunak aztertzen dituztenak. FGT indizea (2) bereziki interesgarria da, pobrezia eta ongizate-gabezia arriskuan dauden pertsonen biztanleria osoarengan izango luketen eragina zenbatesteko balio duelako, baldin eta benetako diru-sarreraren eta beharrezkoen artean gaur egun dagoen desfase hau guztia diru-sarrerarik ez duten pertsonen arabera zenbatetsiko balitz.

* Sen indizeari dagokionez, arriskuan dauden biztanleen diru-sarreraren eta pobrezia-atalasearen artean %26,6ko tartea egon da 2014. urtean (eta %48,4ko tartea ongizate-gabezia-atalasearekiko). Pobrezian egoteko arriskua duten familien diru-sarrerak, hortaz, pobrezia-arriskutik kanpo egoteko behar direnen %73,4 dira, eta gizarte honetan espero dira gutxieneko ongizate-mailetara heltzeko behar direnen %51,6. Ongizatearen atalaseari dagokionez, pobreak izan gabe ongizate-gabeziako arrisku-egoeran dauden familiei eragiten dien desfasea %27,6 da.

Beste alde batetik, FGT indizeak (2) 2014ko pobrezia absolutu eta metatuaren %2,18 jaso du (erabat pobreak diren pertsonak dira, 0 baliabide dutenak). Erreferentziako proportzioa %6,06 da erabateko ongizate-gabezia duten pertsonen kasuan.

Eta datu horiek, orduan, berretsi egiten dute 2008. urtera arte FGT indizearen (2) bilakaeran antzemandako joera eten egin dela: beherako joera etengabea. Pobrezia-atalaseari dagokionez, 2008 eta 2012 urteen artean indizeak gora egin zuen, %0,78tik %1,64ra; 2014. urtean %2,18 izan da. 2004an %1,18tik gorakoa izan zen kopurua eta 2000. urtean %1,77tik gorakoa; soilik geratu zen 196ko %2,93tik eta 1986ko %2,77tik behera. 2008-2014 aldiaren goranzko joera indartsua egon da, hurrengo ondorioz: sarreraren ziozko pobrezia-arriskuak gora egin du eta, bestalde, pobrezia-atalaserako tartearen Sen indizea gehitu egin da. Izan ere, honakoa izan da indizearen igoera: 2008an %13,7 izan zen, 2012an %22,6 eta 2014an %26,6. 2014ko Sen indizea 1986. urtetik altuena izan da, azken urte honetakoa %23,7 izan baitzen eta honen gainetik geratu baita.

Ongizate-gabeziari lotutako egoerei dagokienez, FGT indizea (2) ere gehitu da: 2008an %3,28 izan zen, 2012an %4,92 eta 2014an %6,06. Zifra honek 2004ko %5,60 ere gainditu du. 2004ko eta 2014ko arrisku-tasak berdinak izan arren (%21,9 urte bietan), 2014tik 2004rako atalaserako tartea bi puntu handiagoa izan da (%27,6 eta %25,6).



2014ko FGT indizea (2), alabaina, 2000. urteko %6,69tik behera geratu da; beraz, 1986ko eta 1996ko %10etik urrundu da. Ongizate-gabeziaren adierazleari dagokionez datu horiek eman dira krisi garaian Sen indizeak ez duelako pobrezia kasuan bezain datu alturik eduki; 2008an %20 izan zen eta 2012an %27,6 (pobrezia atalaserako tarte, aldiz, %13,7tik %26,6ra igo da).

Mantenu-pobrezia inaktuarekin lotutako estatistika-indizeak (mantenua). PGDI metodoa. 1986-2014
Pobrezia-tasa, Sen indizea, FGT (2) indizea, eta pobrezia-atalasearekiko baliabiderik gabeko lagun baliokideak

Urtea	Pobrezia-tasa	Sen indizearen atalasearekiko distantzia	FGT (2) HI indizea	Baliabiderik gabeko lagun baliokideak	Etxekoen unitateen oinarria
1986	11,7	23,7	2,77	59.015	594.550
1996	13,3	22,0	2,93	62.207	674.954
2000	7,9	22,5	1,77	36.674	688.227
2004	5,6	21,1	1,18	24.541	742.753
2008	5,7	13,7	0,78	16.741	797.372
2012	7,3	22,6	1,64	35.575	856.588
2014	8,2	26,6	2,18	47.009	876.999

Iturria: GEABA 1986, PGDI 1996-2012 eta GZE-BSI 2014

Mantenu-alorreko ongizaterik ezeko egoeren inaktuarekin lotutako estatistika-indizeak. PGDI metodoa. 1986-2014

Ongizate-gabeziaren tasa, Sen indizea, FGT (2) indizea, eta pobrezia-atalasearekiko baliabiderik gabeko lagun baliokideak

Urtea	Ongizate-gabeziaren tasa	Sen indizearen atalasearekiko distantzia	FGT (2) HI indizea	Baliabiderik gabeko lagun baliokideak	Etxekoen unitateen oinarria
1986	59,3	31,9	18,92	402.759	594.550
1996	36,3	28,8	10,46	221.981	674.954
2000	24,7	27,0	6,69	138.557	688.227
2004	21,9	25,6	5,60	116.650	742.753
2008	16,4	20,0	3,28	70.663	797.372
2012	19,9	24,7	4,92	106.894	856.588
2014	21,9	27,6	6,06	130.740	876.999

Iturria: GEABA 1986, PGDI 1996-2012 eta GZE-BSI 2014

1.2. Pobrezia eta prekaritatea metatze-alarrean (ondarea eta epe luzeko bizi-baldintzak)

1.2.1. Metatze-pobreziaren PGDI adierazleak

- * 2014. urtean berrikuntza bat eman da: metaketa-pobreziaren adierazleak gora egin du, epe luzeko bizi-baldintzen eta erreserbako gutxieneko ondarea edukitzearen eraginez.

Pobrezia mota hau sarriago agertu da 2012 eta 2014 urteen artean %1,4tik %2ra igo delako, eta krisialdiko urteetan zehar lehenengo igoera izan da hau. Adierazlea 1996-2004 urteetan %3,6 eta %4,2 artekoa izan zen, baina duela gutxi arte 2008ko %1,5ak erakutsi zuen beherako joerari eutsi zitzaion eta 2012 urtean %1,4ko gutxieneko tasa lortu zen. 2012. urtean 31.094 pertsonak bizi izan zuten pobrezia mota hori eta 2014an 43.083, hau da, azken biurtekoan %38,6 gehitu da pertsona horien kopurua.

Gorakada izan arren, metaketa-pobreziaren eragina 1996-2004 aldiko zifrak baino askoz beherago geratu dira 2014. urtean, bai fenomenoaren eraginari dagokionez baita kaltetuta dauden pertsonen kopuruari dagokionez ere. Azken kasu horretan, izan ere, 74.000 pertsona sartu ziren 1996 eta 2004 urteen artean.

- * Oro har, 2012. urtean biztanleen %20k bizi zituzten metaketako dimentsioan ongizate-gabeziaren forma desberdinak. Pobreziarekin gertatutakoa baino haustura handiagoa gertatu da orduan. Pobrezia-tasa oso txikia izan zen oraindik 2014. urtean, 2004rekin alderatuta; baina kontrakoa gertatu da metaketari lotutako ongizate-gabezia dauden pertsonen proportzioarekin, aurreko hamarkadako erregistroak gainditu baitira: 2000. urtean %17,2 eta 2004an %19,4. Soilik geratu da 1996. urteko %25,3tik behera.

Beste aldetik, 2014. urtean maila gorenera heldu da (%41,4ra) erabateko ongizatea izan duten, hau da, ondareari edo epe ertain eta luzeko bizi-baldintzei lotuta inolako gabeziarik eduki ez duten pertsonen kopurua. Zifra horrek 2008ko %34,2 gainditu du, baita 2012ko %40,1 ere.

Ondorioz, gutxieneko ongizatea duen baina erabateko ongizatera heltzen ez den tarteko taldeak beherakada handia izan du. 2004an talde hau gehiengoa izan zen (%51,5), baina etengabe behera egiten hasi zen 2014ko %38,6ra heldu arte.



Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arriskuari buruzko PGDI adierazleak metatzeari dagokionez (2012ko hurbilketa) 1996-2014
Familia-etxebizitzetan bizi direnak
(Datu absolutuak)

Egoera	1996	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
Pobrezia	76.127	87.542	74.759	32.838	31.094	43.083	38,6	31,2
Ongizate-gabezia	459.791	268.400	330.546	367.811	349.353	388.535	11,2	5,6
Gutxieneko ongizatea	535.918	355.942	405.306	400.649	380.447	431.618	13,5	7,7
Ongizate minimoa	1.079.596	1.024.809	1.072.864	1.014.549	920.132	833.964	-9,4	-17,8
Erabateko ongizatea	506.063	689.649	606.012	736.587	870.676	892.547	2,5	21,2
Guztira	2.121.577	2.070.400	2.084.181	2.151.785	2.171.254	2.158.129	-0,6	0,3

((Intzidentzia %-tan))

Egoera	1996	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
Pobreza	3,6	4,2	3,6	1,5	1,4	2,0	0,6	0,5
Ongizate-gabezia	21,7	13,0	15,9	17,1	16,1	18,0	1,9	0,9
Gutxieneko ongizatea	25,3	17,2	19,4	18,6	17,5	20,0	2,5	1,4
Ongizate minimoa	50,9	49,5	51,5	47,1	42,4	38,6	-3,7	-8,5
Erabateko ongizatea	23,9	33,3	29,1	34,2	40,1	41,4	1,3	7,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	0,0	0,0

Iturria: PGDI, 1996-2012 eta GZE-BSI 2014

Oharrak:

Datu absolutuen atalean, bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2014an kaltetuta egon diren pertsonen kopuruaren eta 2008an eta 2012an, hurrenez hurren, egondakoen kopuruaren arteko aldaketa (%).

Intzidentziaren atalean(%tan), bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2014 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

1.2.2 Gabeziaren/metaketaren adierazleak

* Ondareari eta bizi-baldintzei buruzko dimentsioaren adierazle bereziak aztertzean informazio gehigarria lortu da 2012 eta 2014 urteen artean prekaritatearen dimentsioan gertatu den beherakadari buruz, krisia gogorragoa izan zenean gainera.

Alde batetik, biztanleen ondare kopuruak behera egiten jarraitu du. Horrela, 1996 eta 2008 urteen artean etengabe hazten egon zen EAeko biztanleen ondare osoa %9,1 murriztu da 2008 eta 2014 urteen artean. Biztanleko ondare kopurua %9,4 murriztu da; 2008an 116.688 eurokoa izan zen, 2012an 106.546koa eta 2014an 105.714koa. Hala ere, ikusten denez beherakadarik handiena 2008-2014 laurtekoan gertatu da.

2012. urtera arteko joera jabetzako etxebizitzaren balioaren beherakadak eragin zuen; 2008-2012 laurtekoan %14,3 jaitsi zen eta 2014an %17,1. 2012 eta 2014 urteen artean gainerako ondareetan ere eman da beherakada, aurrezkian izan ezik; aldi horretan %5eko beherakada izan da eta datu horrek konpentsatu egiten du hein handi batean 2008 eta 2014 urteen artean antzemandako %3,9ko aurrerapena.

2012 eta 2014 artean biztanleek metatutako aurrezkiak bakarrik egin du gora; aldi horretan %22,4 igo da eta azken urte horretan 24.536 milioi euroko aurrezki osoa lortu zen (+%107,5, 2008ko 11.826arekin alderatuta). Bat ere aurrezkirik ez duten biztanleen kopurua %21,8ra murriztu da 2014an; 2012an izan zen %23,5eko gutxieneko kopurua eta 2008ko %28,5 baino beherago geratu da, beraz. Era berean, 2012ko %47,3arekin alderatuta pixka bat gora egin duen arren, gutxienez urtebetean zehar ohiko gastuak ordaintzeko aurrezte-maila eskasa duten biztanleen ehunekoa oraindik txikia da 2014an, gainerakoekin alderatuta betiere. %48,1arekin, erreferentziako zifra aurreko 2000 eta 2008 urteetako gutxieneko kopuruak (%57,6-%57,8) baino ia 10 puntu txikiagoa izan da.

Aurrezkiaren bilakaera on hori are deigarriagoa da gainera beste datu desberdin batekin alderatuta: etxebizitza bat erosteko gastuak dituzten familietako pertsona kopurua gero eta handiagoa da, jabetzako etxebizitza erabat amortizatu gabe dutelako edo etxebizitza hori alokatuta dutelako. 1986 eta 1996 urteen artean %31,2tik %23,5era jaitsi zen kopuru hori, baina harrezkero adierazleak etengabe gora egin du: 2012an %45,8 izan zen eta maximo berria 2014an izan zuen, %47,6arekin.

Ohiko bizilekua ez diren beste ondare batzuk edukitzeari dagokionez antzeko joerak ikusi dira; 2012an minimo berria lortu zen, %68,9, ondasun mota horiek eduki izan dituzten pertsonen kopuruan.

- * Dena den, epe ertainean eta luzean aurrezteko gaitasunari lotutako kontsumo-adierazle batzuek lehenengo aldiz aldatu dute 2012ra arteko dinamika ona. Horren adibide argiena honakoa da: gutxienez astebeteko oporraldia hartu ezin duten pertsonen kopuruaren beheranzko joera eten egin da. 1996tik (%47,7) 2012ra (%36,4) etengabe murrizten joan da kopurua, baina 2014. urtean %41,6raino igo da. Hau da, azken kopuru honek gaintu egin ditu 2000-2012 aldiko erregistro guztiak eta aldi honetako 2000ko maximoa (%39,4). Arazo ekonomikoak direla medio gabezia hori dutela esan duten pertsonen kopurua ere gehitu da, baina neurri txikiagoan; gehikuntza horrek 2000. urteaz gero gorako joera izan du: 2000an eta 2004an %19,4-%19,7 kopuruak eman ziren, 2008. urtean %20,3, 2012an %21,1 eta 2014an %22,6. 1996. urteko %27,8ak bakarrik gaintu zuen kopuru hori.

Krisiak epe luzerako beste kontsumo-elementu batean ere izan du eragin handia: 10 urtetik beherako antzintasuna duen ibilgailu automobila eskuratzeko aukera. Kasu honetan, 1996 eta 2008 urteen arteko datuak %37,2 eta %39,3 artekoak izan dira; baina 2012. urtean, mota horretako ondasun bat eduki ezin izan duten pertsonen kopurua %49raino igo zen eta 2014an %50,6raino. 1986. urteko %51,9ak bakarrik gaintu zuen kopuru hori.

Beste alderdi negatibo bat ere azpimarratu behar da: gutxieneko ondare baliabideak edukitzeko gaitasun txikiagoa duten pertsonen kopuruak gora egin du. EAEko medianaren %40tik beherako biztanleko ondarea duten biztanleen kopuruak %16,5 ingurukoak izan ziren 2012an eta 2014an, hau da, 2008ko %14,1etik gorakoak. Hori gorabehera azaldu behar da joera egiturazkoa dela batez ere, koiunturazkoa baino gehiago; 1996ko %11,1etik etengabe hazi da, soilik egin du behera eta gutxi 2004-2008 laurtekoan, %15,6tik %14,1era. Egia esan, 2014. urtearen ezaugarria da behin eta berriro igo den egitura hori eten egin dela; urte honetan, %16,5arekin, 2012ko %16,6aren parean geratu da.



Metaketaren dimentsioan ongizate-gabezia egoeren igoera aztertzeko ikuspegitik, are nabarmenagoa izan da honako datu hau: biztanle bakoitzaren ondarea EAEko medianaren %40 eta %60 artean duten pertsonen kopuruak gora egin duela. Datu hori etengabe jaitsi da 1996ko %10,9tik 2008 eta 2012ko %7,5 ingururaino; baina 2014an biztanle kopuru hori %9,5eraino igo da. Azaldutako horren ondorioz, 2014. urtean medianaren %60tik gorako biztanleko ondarea izan duten pertsonen kopurua 1996az gero txikiena izan da (%74koa, eta urte horretan %78koa).

- * Oro har etxebizitza finkatuaren instalazioei eta bizigarritasun-baldintzei buruzko adierazleen bilakaera, aldiz, 2012. urtera arte ona izan da. Orduan berretsi egiten da etxebizitzako oinarrizko instalazioetan (ur beroa, elektrizitatea, bainuontzia edo dutxa, eta komuna) gertatzen diren arazo larrien inguruko egoerak ia erabat desagertzeko joera. Gainera, 2014. urtean berriz lortu dira minimo historikoak honako arazoak dituzten pertsonen kopuruan: etxebizitzan azalera nahikoa ez edukitzea, zaratak edo kutsadura izatea edo etxebizitzak argi eskasa edukitzea.

Bilakaera ona izan dute, era berean, etxebizitza hornitzeko adierazleek; oinarrizko ekipamendu motaren arabera gutxieneko mailak eman dira, beti biztanleen %1etik beherako balioekin. Hala ere, oinarrizko ekipamenduetan gabeziaren bat duten pertsonen kopuruak pixka bat gora egin du: 2012ko %0,6tik 2014ko %0,8ra igoa da adierazle hori. Hots, 2014an gabezia-egoera larri gehiago egon da metaketa-pobrezia aztertzean agertutako arazoei dagokienez¹¹.

Pixka bat negatiboagoa den errealitate horrekin batera, etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzen ezaugarri batek okerrera egin du. Ildo horretan, hezetasun arazoak dituzten etxebizitzetan bizi diren pertsonen kopurua %7,7 zen 2008. urtean, eta harrezkero kopuruak gora egin du. 2012. urtean gorakada txikia izan du, %8,8 pertsona egon baitziren egoera horretan, baina gorako joera hori 2014. urtean izan da agerikoena, urte honetan %11,8ko adierazlea izan baita. Kopuru hori 1996-2012 aldi osokoa baino altuagoa izan da, eta soilik geratu da 1986ko %29,9tik behera¹².

¹¹ Gorakada honek garrantzi handia du gabezien zerrenda horretan ontzi-garbigailua zegoelako 2012an baina 2014an ez.

¹² Hezetasun arazoak dituzten etxebizitzaren adierazlearen gorakada hori zuzenean dago lotuta etxebizitza tenperatura egokian edukitzeko arazoak dituzten pertsonen kopuruaren igoerarekin.

**Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera metatzeari dagokionez (ondarea eta bizi-baldintzak)
Ondare-baliabideak eskuratzea. 1996-2014**

Ondare-baliabideen (milioi €-tan) eta guztizko *per capita* ondarearen (€-tan) balio estimatua.

Ondare-baliabidea	1996	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
Lehenengo etxebizitza	51.615	84.317	142.308	205.520	176.229	170.304	-3,4	-17,1
Aurrezkiak	5.079	7.853	8.056	11.826	20.042	24.536	22,4	107,5
Beste ondare-ondasun batzuk	8.447	17.394	18.642	33.742	35.068	33.304	-5,0	-1,3
Guztizko ondarea	65.140	109.564	169.006	251.088	231.339	228.144	-1,4	-9,1
Guztizko ondarea, <i>per capita</i>	30.704	52.919	81.090	116.688	106.546	105.714	-0,8	-9,4

Iturria: PGDI 1996-2012 eta GZE-BSI 2014

Oharra: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2014an kaltetuta egon diren pertsonen kopuruaren eta 2008an eta 2012an, hurrenez hurren, egondakoen kopuruaren arteko aldaketa (%).

Per capita guztizko ondareari buruzko datuak *per capita* hurbilketa batean oinarritzen dira, berdintasun-faktoreak alde batera utzita.

**Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera metatzeari dagokionez (ondarea eta bizi-baldintzak).
Ondare-baliabideak eskuratzea. 1986-2014. Intzidentzia %-tan
Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
Gutziz ordaindu gabeko ondasuna, alokairua eta antzekoak	31,2	23,5	26,7	34,0	41,7	45,8	47,6	1,9	5,9
Aurrezkirik eza	DE	42,7	29,8	33,8	28,5	23,5	21,8	-1,7	-6,7
Urtebeteko gastuari aurre egiteko nahikoa aurrezkirik eza	DE	68,4	57,6	63,1	57,8	47,3	48,1	0,8	-9,7
Hamar urte baino gutxiagoko ibilgailurik ez	51,9	37,2	39,3	38,8	38,7	49,0	50,6	1,7	12,0
Bestelako ondare-ondasunik ez (etxebizitza edo aurrezkiak ez direnak)	DE	78,6	71,7	77,5	73,4	70,6	68,9	-1,6	-4,5
Gutxienez astebeteko oporraldirik ez	DE	47,7	39,4	38,8	37,0	36,4	41,6	5,1	4,6
Gutxienez astebeteko oporraldirik ez (arrazoi ekonomikoengatik)	DE	27,8	19,4	19,7	20,3	21,1	22,6	1,5	2,3
<i>Per capita</i> ondarea < medianaren % 40	DE	11,1	13,7	15,6	14,1	16,6	16,5	-0,1	2,4
<i>Per capita</i> ondarea < medianaren % 40 - % 60	DE	10,9	10,5	8,4	7,5	7,6	9,5	1,9	2,0
<i>Per capita</i> ondarea < medianaren % 60	DE	78,0	75,8	75,9	78,4	75,8	74,0	-1,9	-4,4

Iturria: GEABA 1986, PGDI 1996-2012 eta GZE-BSI 2014

Oharra: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2014 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).



Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera metatzeari dagokionez (ondarea eta bizi-baldintzak).

Etxebizitzaren instalazioak eta bizigarritasun-baldintzak. 1986-2014

Intzidentzia %-tan

Familia-etxebizitzetan bizi direnak

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
Etxebizitzaren oinarrizko instalazioak									
Ur berorik gabe	3,6	,6	,3	,9	,1	,0	,1	0,1	0,0
Instalazio elektrikorik gabe	DE	0,0	,0	,2	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Bainuontzirik edo dutxarik gabe	4,7	,4	,3	,9	,4	,0	,0	0,0	-0,4
Komunik edo bainuontzirik/dutxarik gabe	DE	,4	,3	,9	,4	,0	,0	0,0	-0,4
Bizigarritasun-baldintzak									
Hezetasun-arazoak dituen etxebizitza	29,9	5,1	8,9	9,6	7,7	8,8	11,8	3,0	4,1
Azalera < 20 metro koadro/pertsona bakoitzeko	44,1	32,5	28,5	21,3	15,0	14,9	13,3	-1,6	-1,7
Zaratekiko/kutsadurarekiko esposizioa	0,0	20,2	20,2	16,0	11,0	13,9	8,5	-5,4	-2,5
Argiztapenik gabe, ez du nahikoa argirik	DE	DE	DE	8,8	5,7	12,2	3,3	-8,9	-2,4

Iturria: GEABA 1986, PGDI 1996-2012 eta GZE-BSI 2014

Oharra: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2014 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

**Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera metatzeari dagokionez (ondarea eta bizi-baldintzak)
 Etxebizitzaren ekipamendua. 1986-2014
 (Intzidentzia %-tan)
 Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
Hozkailua	DE	,1	,1	,8	,1	,0	,0	0,0	-0,1
Sukaldeko ekipamendua	5,8	,1	,1	,0	,0	,0	,0	0,0	0,0
Arropa-garbigailua	6,0	,6	,3	,3	,1	,1	,0	-0,1	-0,1
Labea edo mikrouhin-labea	DE	4,6	5,2	5,1	1,8	,9	,6	-0,3	-1,1
Koloretako TB	26,4	,7	,4	1,2	,4	,1	,1	-0,1	-0,3
Telefonia	DE	DE	DE	1,9	,6	,2	,2	-0,1	-0,4
Oinarrizko ekipamenduetan bi gabezia edo gehiago izatea	DE	,4	,2	,9	,1	,0	,1	0,1	0,0
Oinarrizko ekipamenduetan gabezia bat	DE	2,3	1,8	2,2	1,1	,6	,7	0,1	-0,4
Oinarrizko ekipamenduetan gabeziaren bat	DE	2,7	2,1	3,1	1,2	,6	,8	0,2	-0,4

Iturria: GEABA 1986, PGDI 1996-2012 eta GZE-BSI 2014

Oharra: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2014 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).



1.3. Benetako pobreziaren eta prekarietatearen adierazle sintetikoak

1.3.1 Alderdi orokorrak

Aztertu diren arazoak edo arrisku-egoerak ez dira automatikoki islatzen pobreziaren edo prekarietatearen benetako bizipenean. Arrisku-egoera desberdinak aztertu diren dimentsioetako batean (mantenua edo metaketa) ongizate-elementuak egotearekin konpentsa daitezkeen edo ez hartu behar da kontuan.

Europa oinarritzat duen ikerketan erabili ohi diren arriskuaren adierazleez gainera beste adierazle batzuk ere behar dira, benetako pobreziaren eta ongizate-gabeziaren egoeren eragina neurtzeko balio dutenak. Benetako pobreziaren eta prekarietatearen PGDI adierazleek hurrengo egoerak mugatzen dituzte: pobreziaren eta prekarietatearen dimentsioetako batean agertzen diren beharrezkoak behar bezala estalita ez edukitzeko arrisku-egoerak ondo konpentsatzen ez direnean biztanleen ohiko bizimoduan. Horrela, gure gizartean espero den gutxieneko ongizate-mailara heldu ahal izango dira.

* Printzipio horiek aintzat hartuta, PGDI metodoaren arabera %4,2tik %5,9ra igo da benetako pobreziaren agerpena 2008 eta 2014 urteen artean, 1,7 portzentaje-puntu gehiagorekin, eta %42 igo da pertsona pobreen kopurua. 2008an 89.706 pertsona egon ziren egoera horretan, 2012an 114.696 eta 2014an 127.399. Ikusten denez, 2008-2012 aldian izan zen igoerarik handiena; eta igoera horren %33,7a 2012-2014 biurtekoan eman zen.

Krisiaren eraginez diru-sarrerek izan duten beherakadaren eta metaketa-pobreziak 2000. urteaz gero izan duen lehenengo gorakada garrantzitsuaren ondorioz, lehenengo aldiz gaintu da urte horretako benetako pobrezia-tasa: %5,1. Guztiz galdu dira 2000 eta 2008 urteen artean eman diren aurrerapenak. 2014ko benetako pobrezia soilik geratu da 1996. urteko %8,7aren eta 1986. urteko %16,1aren azpitik.

Ongizate-gabeziaren benetako egoeren kopuruak ere egin du gora. Benetako pobreziaren muturreko egoerak ere kontuan hartuta, 2012an EAeko biztanleen %11,5ek izan dute arazo hori; 2008ko %8,2 eta 2012ko %10,1 baino pertsona gehiagok. 2008 eta 2014 urteen artean %41,1 kaltetu gehiago egon da: 2008an 175.668 izan ziren eta 2014an 247.954. Igoera horren %41,1 2012-2014 aldian eman da.

Pobreziari lotuta ikusi den bezala, ongizate-gabeziaren benetako arazoak 2008-2014 aldian gehitu direnez ongizate-gabeziaren adierazle historikoek okerrera egin dute. 2014ko %11,5ek pixka bat gaintzen ditu 2000 eta 2004 urteetako kopuruak (%11-%11,2 ingurukoak).

Dena den, erabateko ongizatea duten hau da sarreren edo metaketa dimentsioan inolako gabeziarik ez duten (ondarea eta bizi-baldintzak) pertsonen kopuruaren igoera sendotu egin da. 2014. urtean kopuru horrek maximoa jo zuen berriz: %38,7. Horrela gainditu egin dira 2012. urteko %37,4 eta 2008ko %32.

Arrisku handieneko taldeek gorako joera izan dute, baita ongizate onena dutenen taldeek ere eta, ondorioz, tartean dauden taldeek protagonismoa galdu dute. 2012. urtean ez bezala, 2012 eta 2014 urteen artean mugako taldearen pisu erlatiboak gorako joera izan du; ongizateari lotutako ezaugarri gehiago eman dira baina ongizaterako arriskuekin. Talde honen pisua etengabe murriztu da 1986tik (%36,3) 2012ra (%18,1) bitartean; 2014. urtean, aldiz, biztanleria guztiaren %19,7 izan dira.

Beherakada handiena ongizatea duen taldeak izan du, erabateko ongizatea edukitzea eragozten dion ezaugarri negatiboren bat izan duelako. Ia erabateko ongizatea duen (nahiz eta erabatekoa ez izan) talde honek gero eta gizarte-protagonismo handiagoa izan du 1996 eta 2004 urteen artean; aldi horretan %21,2tik %41,4ra igo zen horien agerpena EAEn. Baina urte horretatik aurrera kopurua murrizten hasi zen; 2014. urtean %30,2 izan dira.

Testuinguru horretan, 2012 eta 2014 urteen arteko alderik nabarmenena ez da pobrezian dauden taldeen kopuruak igoera handia izan dutela, ongizate-gabeziari lotutako errealitateak daudela edo ongizateaz gozatzea mugatzen duten arriskuak daudela. Horien eragina murriztu egin da 1986tik (%65,6) 2008ra (%27,5), eta gero 2008 eta 2012 urteen artean gorantz egiten hasi zen: 2012. urtean biztanleen %28,1 egon zen egoera horretan eta 2014an %31,1.

Hala ere, ezaugarri berriena da 1996az gero lehenengo aldiz izan dela nagusi EAeko gizartearen beheranzko mugikortasuna. Izan ere, ia erabateko ongizatea duten pertsonen osatutako taldearen pisuak 6 puntu behera egin zuen 2008 eta 2012 urteen artean, eta beherakada hori ia osorik eman zen erabateko ongizatean dauden pertsonen taldeak gora egin zuelako - +5,4 puntu -; 2012 eta 2014 urteen artean, aldi, kontrakoa gertatu da. Biurteko horretan, EAeko biztanle-talde honen pisua %34,5etik %30,2ra (-4,3 puntu) murriztu zen berriz eta, ondorioz, erabateko ongizatea zuten biztanleen kopurua 1,3 puntu igo zen. Biztanle kaltetueneren kopurua, aldiz, 3 puntu igo zen: 1,6 igo zen ongizatea nagusi zuten baina arriskuren bat ere bazutenen kopurua, 0,8 pobrezia heldu gabe ongizate-gabezia zeudenen kopurua eta 0,6 benetako pobrezia egoeran zeudenen kopurua.

Prozesu horren ondorioz, erabateko ongizatea edo ia erabateko ongizatea duten biztanleen kopuruak behera egin zuen; 74.849 pertsona gutxiago egon ziren talde horretan 2012 eta 2014 urteen artean. Alderdi ez hain txarra da biztanle kopuru txiki bat bakarrik geratu zela benetako pobrezia egoeran (12.703 pertsona, guztien %17). Biztanleen %22,7 ongizate-gabeziari lotutako benetako arazoak dituzten taldean sartu ziren, baina ez pobrezian; eta %39,7 batez ere ongizatean bizi diren taldean sartu ziren baina arrisku-errealitate batzuekin. Gainerako %20,6 zuzenean daude lotuta EAeko biztanleria kopuruak 2012-2014 biurtekoan izan zuen beherakadarekin.



**Egoeren bilakaera benetako pobrezia/ongizatea eskalan
PGDI adierazleak (2012ko hurbilketa). 1996-2014
Familia-etxebizitzetan bizi direnak
(Datu absolutuak)**

Kokapena eskalan	1996	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
<i>Pobrezia</i>	185.360	106.376	93.835	89.706	114.696	127.399	11,1	42,0
<i>Ongizate gabeziaren beste era bat</i>	165.355	120.607	139.149	85.962	103.536	120.555	16,4	40,2
Ongizate-gabezia	350.715	226.983	232.984	175.668	218.232	247.954	13,6	41,1
Ongizate eta arrisku elementuak	621.877	451.190	430.595	416.087	392.111	424.111	8,2	1,9
la erabateko ongizatea	723.264	782.334	863.390	872.089	748.214	650.989	-13,0	-25,4
Erabateko ongizatea	425.721	609.894	557.213	687.941	812.698	835.074	2,8	21,4
Guztira	2.121.577	2.070.400	2.084.181	2.151.785	2.171.254	2.158.129	-0,6	0,3

Iturria: PGDI 1996-2012 eta GZE-BSI 2014

Oharra: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen kopuruaren eta 2008koaren arteko aldaketa.

**Egoeren bilakaera benetako pobrezia/ongizatea eskalan
PGDI adierazleak (2012ko hurbilketa). 1996-2014
Familia-etxebizitzetan bizi direnak
(Intzidentzia %-tan)**

Kokapena eskalan	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
<i>Pobrezia</i>	16,1	8,7	5,1	4,5	4,2	5,3	5,9	0,6	1,7
<i>Ongizate gabeziaren beste era bat</i>	13,1	7,8	5,8	6,7	4,0	4,8	5,6	0,8	1,6
Ongizate-gabezia	29,3	16,5	11,0	11,2	8,2	10,1	11,5	1,4	3,3
Ongizate eta arrisku elementuak	36,3	29,3	21,8	20,7	19,3	18,1	19,7	1,6	0,3
la erabateko ongizatea	21,2	34,1	37,8	41,4	40,5	34,5	30,2	-4,3	-10,4
Erabateko ongizatea	13,2	20,1	29,5	26,7	32,0	37,4	38,7	1,3	6,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	0,0	0,0

Iturria: GEABA 1986, PGDI 1996-2012 eta GZE-BSI 2014

Oharra: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2014 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

* Azpimarratzekoa da, dena den, 2014. urtean benetako pobrezia adierazle objektiboak oraindik gizartearen pertzepzioarenak baino altuagoak direla. Ildo horretan, 2014ko adierazlearen arabera %5,9 pertsona benetako pobrezian daude, baina haien burua *pobre* edo *oso pobre* moduan daukaten EAEko familietako pertsonen proportzioa askoz txikiagoa da: %2,6. 2008ko %2,1arekin alderatuta datua 0,5 puntu igo da.

Haien burua *batez ere pobretzat* duten biztanleak %7,2 izan dira, hau da, 2008. urtean erregistratutako datua baino 0,7 puntu altuagoa. Eta kopurua txikiagoa da, gainera, hurbilketa objektiboa egitean benetako ongizate-gabezia dauden pertsonen %11,5arekin alderatuta.

Benetako pobrezia adierazleak. Pertzepzio subjektiboa. 1986-2014
Familia-etxebizitzetan bizi direnak
(Intzidentzia %-tan)

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	Bilakaera 2012/2014	Bilakaera 2008/2014
Pobrea edo oso pobrea	17,6	2,1	2,2	3,2	2,1	3,0	2,6	-0,3	0,6
Gutxienez pobre samarra	72,8	7,8	6,5	7,6	6,5	7,9	7,2	-0,7	0,7

Iturria: GEABA 1986, PGDI 1996-2012 eta GZE-BSI 2014

Oharrak: Bilakaeraren adierazleak haxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2014 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).
 «Gutxienez pobre samarra» kategoriako 1986ko datua urte horretan baliaitutako kategorizazioaren arabera da.

2012-2014 aldirian desfase handia egon da adierazle objektiboen eta subjektiboen artean, eta horren eraginez bat izan da bihurtzeko horretan EAEko biztanleen gizarte-itxaropenek nabarmen behera egin dutela. 2012. urtearekin alderatuta, hilabete amaierara heltzeko beharrezkotzat jotzen diren diru-sarreraren batezbestekoa 2014an %4,2 txikiagoa izan da biztanle nazionalen artean eta %7 atzerriko biztanleen artean. Eta beherakada are handiagoa izan da oinarrizko beharrezkoei aurre egiteko oso beharrezkotzat jotzen den gutxienean: -%4,8 biztanle nazionalen artean eta -%10,5 biztanle atzerriarren artean. Etxebizitza eskuratzeko prezioak eta bereziki alokairuen prezioak behera egin dutelako gertatu da, hein batean, beherakada hori.

1.3.2. DBE/EPO/GLL sistemen eragina

Pobrezia objektiboaren eta egoera horren gaineko pertzepzio subjektiboaren artean dagoen desfasea beste elementu batek ere azal dezake: DBE/EPO/GLL sistemak Euskadin duen eragina. Benetako pobrezia egoeran dauden familietako biztanleak aintzat hartuta¹³, honako alderdiak azpimarratu behar dira:

- * Familiako pertsonaren bat DBE/EPO/GLL sisteman sartuta duen pertsona kopurua 151.591 izan da. Hots, 2012. urtean egoera berean egon ziren 133.217 pertsonak baino %13,7 gehiago, eta 2008ko 83.023 pertsonak baino %82,6 gehiago. EAEko biztanle guztien %7 dira horiek, 2012ko %6,1 eta 2008ko %3,9 baino gehiago beraz. 2014. urtean sistema hori arriskuan zeuden 207.898 pertsonen %72,9ra heldu zen; zifra hori 2012koaren (%72,6) antzekoa da baina 2008koa (%63,6) baino handiagoa.

¹³ Arrisku-egoeran daude benetako pobrezia egoeran dauden pertsonak, baina baita prestazioen sistemara sartzeko funtsezkoak diren arazo ekonomikoak dituzten pertsonak ere.



- * Laguntzak eskuratzean 80.499 pertsona benetako pobreziatik irten da, EAEko biztanleen %3,7. Hau da, %16,9 gehitu da kopuru hori 2012ko 68.884 pertsonekin alderatuta, eta %97 gehitu da 2008ko 40.858 pertsonekin alderatuta. Benetako pobreziatik irteteko laguntzaren eragina gehitu egin da: 2008an arriskuan zeuden biztanleen %31,3ri lagundu zien, 2012an %37,5eri eta 2014an %38,7ri. Erreferentzia gisa hartutako taldean, sistemaren bidezko prestazioak diru-sarrera guztien %41,1 izan dira; baina 2012an %33,5 izan ziren eta 2008an %29,9. Biztanleen %69,5ek ez dute haien familia pobre moduan ikusten 2014. urtean.

Pertsona horietako 24.993k, EAEko biztanleen %1,2k, sistemari heltzean diru-sarreraren pobrezia-atalasea (mantenukoa) gainditu ahal izan dute. 2008an sistemaren onuradun izan diren biztanleekin alderatuta %47,5 gehiago izan diren arren, kopurua %18,4 murriztu da 2012an onuradun izan ziren 30.616 pertsonak kontuan hartzen baditugu.

- * Laguntzak eskuratu arren, benetako pobrezia egoeran egon diren 71.092 pertsona (2012an baino %10,4 gehiago eta 2008an baino %68,6 gehiago) ez dira pobreziatik irten DBE/EPO/GLL sistemari helduta. EAEko biztanle guztien %3,3 sartzten da multzo horretan, 2012an %3 izan zen eta 2008an %2.

Dena den, erreferentzia moduan hartutako pertsona hauen kasuan, sistemaren prestazioen bidez murriztu egiten da dituzten sarreraren eta mantenuko pobrezia-mugaren arteko aldea %76tik %16,1era. 2012koa baino eragin handiagoa gertatu da (%75,9 eta %19,7 zifrekin). DBE/EPO/GLL sistemako sarrerek kolektibo horren guztirako sarreretan duten pisua %71,4rainokoa da, hau da, 2012ko %70aren antzekoa baina 2008ko %56,4 baino handiagoa.

Errealitate hori, kasu askotan, oinarrizko beharrak beteta edukitzera hurbiltzen da. Horrela, adierazle hori 2008ko %61,3tik 2012ko %46,2ra murriztu ostean, aztertu diren pertsonen %65,1aren ustez haien sarrerak nahikoak dira familiek dituzten oinarrizko beharrak betetzeko behar den gutxienekoari aurre egiteko. Aztertutako biztanleen %69,9k, izan ere, ez dute uste haien familiak muturreko pobrezian daudenik; pobreak edo oso pobreak direla uste dute. 2012ko %68tik hurbil geratu da zifra, baina oraindik 2008ko %78,7 baino txikiagoa da.

Aztertu diren pertsonen %65,2, dena den, batez ere pobreak direla uste duten familietan sartzten dira (2012an %64,8 eta 2008an %71,4).

- * Arriskuan egon arren prestazio sistemari heltzen ez dioten biztanleak guztira 56.307 izan dira 2014. urtean, hau da, 2012ko 50.313 pertsonekin alderatuta %11,9 gehiago eta 2008ko 47.542 pertsonekin alderatuta %18,4 gehiago. Pertsona horiek arriskuan dauden familietako kide guztien %27,1 dira; zifra hori 2012ko %27,4tik hurbil geratu da baina 2008ko %36,4 baino txikiagoa izan da. Talde horretan pisu handia dute lanaren ziozko diru-sarrerek (guztien %40,4) eta/edo pentsioen ziozko diru-sarrerek eta Estatuko sistema orokorreko prestazioen ziozko diru-sarrerek (guztien %86).

Datu horiek aztertzean ikusten da kolektiboaren lan-profilak irudi normalizatua duela, lanerako sarrera du nagusi edo horren ordezkotzat prestazio orokorretara. Gainera, aztertutako pertsonen %52,1ek adierazi dute oinarrizko beharrianak estaltzeko gutxienekotzat jotzen diren diru-sarrerak baino gehiago dituztela. Baina kolektibo horren egoera okertu egin da 2008az gero. 2012ko %47,2 gaintu bada ere, 2008ko %70,2tik urrun dago oraindik kopuru hori. Haien burua batez ere pobretzat jotzen duten pertsonen kopurua gehitu egin da: 2008an %44,1 zeuden multzo horretan, 2012an %54,8 eta 2014an %62,2.

Egoerak okerrera egiteko arrazoi objektiboa ondokoari dago lotuta: pertsonak dituzten diru-sarreren eta mantenuko pobreziaaren atalasearen artean dagoen tarteari. Tarte hori etengabe gehitu da 2008az gero aipatu taldean; urte horretan %21,3koa zen tarte, 2012an %24,9koa eta 2014an %30,5koa.



DBE/EPO/GLL sistemak benetako pobrezia-aren prebentzioan duen eraginari buruzko adierazleak. 2008 a 2014

	Abs.	Guztiz- ko biztan- leriaren %	Arrisku - taldeen %	DBE/EPO eta GLL diru- sarreraren %	Norberaren eta prestazioen eta pentsioen sistema orokorreko diru- sarreraren %	Atalaseare- kiko bene- tako distantzia- ren %	Atalaseare- kiko distantziaren %, sistemako prestaziorik gabe	beren burua pobretzat/ oso pobretzat ez dutenen %	Beren burua gutxienez pobre samar- tzat hartzen ez dutenen %	Etxeko unitateko gutxiene- k o premiei aurre egiteko baino diru- sarrerak handia- goak dituztenen %
2014										
Sistemak barne hartutako biztanleria	151.591	7,0	72,9	51,0	43,1			80,8	53,2	77,2
<i>Pobreziatik atera ez den biztanleria</i>	71.092	3,3	34,2	71,4	21,7	16,1	76,0	69,9	34,8	65,1
<i>Pobreziatik atera den biztanleria</i>	80.499	3,7	38,7	41,1	53,4			90,5	69,5	87,9
<i>- Diru-sarrerak > mantenu-pobrezia-aren atalasea</i>	24.993	1,2	12,0							
Sistemak barne hartzen ez duten biztanleria	56.307	2,6	27,1	0,0	86,0	30,5	30,5	70,1	37,8	52,1
<i>- Autonomoen soldatak, lansariak eta diru-sarrerak</i>					40,4					
GUZTIRA	207.898	9,6	100					77,9	49,0	70,4
2012										
Sistemak barne hartutako biztanleria	133.267	6,1	72,6	46,4	48,0			77,1	49,6	65,1
<i>Pobreziatik atera ez den biztanleria</i>	64.383	3,0	35,1	70,0	23,5	19,7	75,9	68,0	35,2	46,2
<i>Pobreziatik atera den biztanleria</i>	68.884	3,2	37,5	33,5	61,4			85,6	63,2	82,8
<i>- Diru-sarrerak > mantenu-pobrezia-aren atalasea</i>	30.616	1,4	16,7							
Sistemak barne hartzen ez duten biztanleria	50.313	2,3	27,4	0,0	88,6	24,9	24,9	80,6	45,2	47,2
<i>- Autonomoen soldatak, lansariak eta diru-sarrerak</i>					42,1					
GUZTIRA	183.580	8,5	100					78,0	48,4	60,2
2008										
Sistemak barne hartutako biztanleria	83.023	3,9	63,6	39,0	53,8			82,1	51,3	76,3
<i>Pobreziatik atera ez den biztanleria</i>	42.165	2,0	32,3	56,4	36,6	17,0	63,8	78,7	28,6	61,3
<i>Pobreziatik atera den biztanleria</i>	40.858	1,9	31,3	29,9	62,8			85,7	74,7	91,9
<i>- Diru-sarrerak > mantenu-pobrezia-aren atalasea</i>	16.944	0,8	13,0							
Sistemak barne hartzen ez duten biztanleria	47.542	2,2	36,4	0,0	92,7	21,3	21,3	77,3	55,9	70,2
<i>- Autonomoen soldatak, lansariak eta diru-sarrerak</i>					36,5					
GUZTIRA	130.564	6,1	100					80,4	53,0	74,1

Iturria: PGDI, 2008-2012 eta GZE-BSI 2014

Pobrezian egoteko arriskuan dauden biztanleen barruan sartzen dira benetako pobrezian dauden edo DBE/EPO/GLL sistemari heltzeko eskubidea ematen duen egoeraren batean dauden pertsonak.

* DBE/EPO/GLL sistemak biztanleen diru-sarreretan izan duen pisua aztertzen bada, benetako pobrezia/ongizatearen eskalan duen kokapenaren arabera, zera ikusten da: gaur egun benetako pobrezia egoeran dauden biztanleen diru-sarrereren %41,7 laguntzen sistema honek ematen du; eta proportzio hori %44,7ra igotzen da EAeko erakundeek beste gizarte-laguntza batzuk kontuan hartuz gero. Ekarpinak gainditu egiten du Estatuko babes orokorrerako sistemako diru-sarrereren %23,2; %15,5 langabezia politikari eta gainerako prestazio osagarriari lotuta dago, eta %7,7 erretiroaren, baliaezintasunaren eta alarguntasunaren (biziraupena) ziozko pentsioen sistema orokorrari dago lotuta.

DBE/EPO/GLL sistemak oraindik garrantzi handia du pobreziatik irteten diren pertsonen artean, nahiz eta pertsona hauek beste ongizate-gabezia batzuk izan; kolektiboaren diru-sarrera gehienak lanaren eta beste jarduera ekonomiko batzuen ondoriozkoak dira (%45,1). Kolektiboaren diru-sarrereren %19,7 EAeko babes sistemak ematen du, eta proportzio hori %21,2ra igotzen da EAeko erakundeek beste laguntza batzuk aintzat hartzen badira. Kontribuzio hori garrantzitsua da, pentsioen sistema orokorreko diru-sarrereren %20,2tik gorakoa delako eta, are gehiago, langabezia babesteko sistemako eta Estatuko beste laguntza orokor batzuetako %9,9tik gorakoa delako.

Biztanleen diru-sarrereren banaketa, motaren arabera eta benetako pobrezia/ongizatea eskalan duten kokalekua kontuan hartuta
Hileko batez besteko datuak, garbiak. 2014
(Datu absolutuak)

Diru-sarrera mota	Pobrezia	Ongizate gabeziaren beste era bat	Ongizate eta arrisku elementuak	Ongizatea	GUZTIRA
Lana	10.285.156	28.961.700	158.090.541	1.165.034.596	1.362.371.993
Higiezinen sarrerak	178.312	164.764	1.438.360	24.799.886	26.581.322
Higigarrien sarrerak, pentsio-funtsak eta antzekoak	292.719	704.262	6.710.229	48.381.464	56.088.674
Laneko kalte-ordainak	108.917	111.232	605.351	14.025.351	14.850.852
Auto-kontsumoa	76.347	29.966	596.037	3.896.216	4.598.566
DIRU-SARRERA PROPIOAK	10.941.451	29.971.924	167.440.519	1.256.137.513	1.464.491.407
Babes orokorra: erretiroa, baliaezintasuna eta alarguntza	3.350.845	13.419.347	68.811.035	424.680.938	510.262.166
Beste babes orokor bat: langabezia eta beste batzuk	6.735.326	6.585.473	28.574.877	72.419.340	114.315.017
SEGURANTZAKO ETA ANTZEKO SARRERAK	10.086.172	20.004.820	97.385.912	497.100.279	624.577.183
DBE/EPO/GLL sistema	18.129.448	13.102.509	7.159.756	1.351.776	39.743.489
Bestelako gizarte-laguntzak	1.281.208	980.530	2.188.259	4.620.352	9.070.349
GIZARTE-LAGUNTZEN SARRERAK	19.410.656	14.083.039	9.348.015	5.972.129	48.813.838
GIZARTEAREN BARRUKO TRANSFERENTZIAK	2.987.328	2.398.588	4.267.472	4.323.413	13.976.801
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	43.425.606	66.458.371	278.441.918	1.763.533.333	2.151.859.229



**Biztanleen diru-sarrereren banaketa, motaren arabera eta benetako pobrezia/ongizatea eskalan duten
kokalekua kontuan hartuta
Hileko batez besteko datuak, garbiak. 2014
(% bertikalak)**

Diru-sarrera mota	Pobrezia	Ongizate gabeziaren beste era bat	Ongizate eta arrisku elementuak	Ongizatea	GUZTIRA
Lana	23,7	43,6	56,8	66,1	63,3
Higiezin sarrerak	0,4	0,2	0,5	1,4	1,2
Higigarrien sarrerak, pentsio-funtsak eta antzekoak	0,7	1,1	2,4	2,7	2,6
Laneko kalte-ordainak	0,3	0,2	0,2	0,8	0,7
Auto-kontsumoa	0,2	0,0	0,2	0,2	0,2
DIRU-SARRERA PROPIOAK	25,2	45,1	60,1	71,2	68,1
Babes orokorra: erretiroa, baliaezintasuna eta alarguntza	7,7	20,2	24,7	24,1	23,7
Beste babes orokor bat: langabezia eta beste batzuk	15,5	9,9	10,3	4,1	5,3
SEGURANTZAKO ETA ANTZEKO SARRERAK	23,2	30,1	35,0	28,2	29,0
DBE/EPO/GLL sistema	41,7	19,7	2,6	0,1	1,8
Bestelako gizarte-laguntzak	3,0	1,5	0,8	0,3	0,4
GIZARTE-LAGUNTZEN SARRERAK	44,7	21,2	3,4	0,3	2,3
GIZARTEAREN BARRUKO TRANSFERENTZIAK	6,9	3,6	1,5	0,2	0,6
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: GZE-BSI 2014

Beste alde batetik azaldu behar da DBE/EPO/GLL sistemak bakarrik ematen diola arreta ongizatera heltzeko arazoak dituzten kolektiboei. Laguntzen %45,6 gaur egun benetako pobrezia lotutako arazoak dituzten kolektiboei bideratzen zaie, %33 ongizate-gabezia dauden kolektiboei eta %18 arrisku-errealitateak izan arren ongizatea bizi duten kolektiboei. Hots, gastuaren %96,6 arrisku-egoera larrienean dauden kolektiboei bideratzen zaie; eta soilik ematen zaie arretaren %3,4 erabateko ongizatean edo ia erabateko ongizatean dauden kolektiboei. EAEko beste asistentzia-laguntzek gastuaren %50,9 bideratzen dute kolektibo horientzat, eta kolektibo hauek hartzen dute, gainera, Estatuaren langabeziako eta beste gizarte-politika batzuetako (pentsioen politika orokorrean sartzen ez direnak) gastuaren %63,4.

**Biztanleen diru-sarrereren banaketa, motaren arabera eta benetako pobrezia/ongizatea eskalan duten
kokalekua kontuan hartuta
Hileko batez besteko datuak, garbiak. 2014
(% horizontalak)**

Diru-sarrera mota	Ongizate gabeziaren		Ongizate eta arrisku	Ongizatea	GUZTIRA
	Pobrezia	beste era bat	elementuak		
Lana	0,8	2,1	11,6	85,5	100,0
Higiezin sarrerak	0,7	0,6	5,4	93,3	100,0
Higigarrien sarrerak, pentsio-funtsak eta antzekoak	0,5	1,3	12,0	86,3	100,0
Laneko kalte-ordainak	0,7	0,7	4,1	94,4	100,0
Auto-kontsumoa	1,7	0,7	13,0	84,7	100,0
DIRU-SARRERA PROPIOAK	0,7	2,0	11,4	85,8	100,0
Babes orokorra: erretiroa, baliaezintasuna eta alarguntza	0,7	2,6	13,5	83,2	100,0
Beste babes orokor bat: langabezia eta beste batzuk	5,9	5,8	25,0	63,4	100,0
SEGURANTZAKO ETA ANTZEKO SARRERAK	1,6	3,2	15,6	79,6	100,0
DBE/EPO/GLL sistema	45,6	33,0	18,0	3,4	100,0
Bestelako gizarte-laguntzak	14,1	10,8	24,1	50,9	100,0
GIZARTE-LAGUNTZEN SARRERAK	39,8	28,9	19,2	12,2	100,0
GIZARTEAREN BARRUKO TRANSFERENTZIAK	21,4	17,2	30,5	30,9	100,0
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	2,0	3,1	12,9	82,0	100,0

Iturria: GZE-BSI 2014



2. Arrisku-egoera larrienean dauden gizarte-taldeak eta guneak

2.1. 2012. eta 2014. urteen artean, pobreziaren eta prekaritatearen larriagotzea gehien nabaritu duten taldeak

* Analisisirako oinarritzko erreferentzia gisa pobrezia errealearen adierazlea hartzen badugu, egiaztatzen da 2012. eta 2014. urteen artean, pobrezia arinago egin duela aurrera honako kolektibo hauetan:

a) Seme-alabak dituzten bikoteak eta bakarrik dauden pertsonak

Nahiz eta tasak EAEko batez besteko orokorretik behera egoten jarraitzen duen, 2012. eta 2014. urteen artean pobreziaren aurrerapenik nabarmenena seme-alabak dituzten bikoteengan antzeman da. Benetako pobrezia kasuak %3,7tik %5,5era igo dira aldi horretan; hots, 2008 urteaz gero (%3,3 urte horretan) kasuen kopuruak gora egin du. 2008. eta 2012. urteen artean, pobreziaren banaketan presentzia galdu zuen (%50,1etik %40,6ra), baina, 2014an, berriro izan zen nagusi pobrezian familia mota hori, eta benetako pobrezia egoeren %51,9 izan zen. Guraso bakarreko familiekin batera, seme-alabak dituzten bikoteengan ematen da 2014an benetako pobrezia kasuen %75,5.

2008tik benetako pobrezia gora egiteko duen joera ere nabarmena da bakarrik dauden pertsonen artean. Tasak, kasu honetan, 2008an %6,4tik, 2012an %8ra egiten du gora, eta beti mantentzen da EAEko batezbestekotik gora. Pobrezia egoeretan dauden eta bakarrik dauden pertsonak 2014an %15,3 dira, eta, beraz, gainditu egiten du talde horrek 2008ko %13,5 eta 2012ko %12,5.

Gainerako familia motetan behera egiten du benetako pobreziaren eraginak 2012 eta 2014 artean. Hala ere, 2014an, pobreziaren eraginak jarraitzen du izaten EAEko batez bestekotik gorakoa guraso bakarreko familien artean (%12,7) eta gainerako familia taldeen artean (%9,9).

Haurren pobreziaren larriagotzea

Guraso bakarreko familiei eragiten dien benetako pobrezia tasa altua eta seme-alabak dituzten bikoteen artean –gizartean kantitateari dagokionez talderik ugarienak– arazoaren larriagotzea dela eta, adingabeak dituzten etxebizitza ugari dago pobreen kolektiboen artean. Horrela, benetako pobrezian dauden pertsonen %57,4 2012an 14 urtetik beherako adingabeak dauden familietan bizi da.

14 urtetik beherako adingabeen artean benetako pobrezia egoerek azkarrago egiten dute aurrera gainerako herritarren artean baino. 14 urtetik gorako biztanleen pobrezia-tasa 1,4 puntu gehitu da 2008 eta 2014 urteen artean, %3,7tik %5,1era igaroz. Baina 14 urtetik beherako biztanleen tasa 3,9 puntu gehitu da. Azken tasa hau gehitu egin da: 2008an %7,3ko tasa izan zen, 2012an %9,5koa eta 2014an %11,2koa. Hau da, 14 urtetik gorako biztanleen tasa halako bi baino gehiago izan da azkenean. 2008

eta 2012 urteetan %24tik hurbil ibili diren tasak eduki ostean, benetako pobrezia bizi izan duten familia guztien artean 14 urtetik beherako biztanleen multzoa %25,7 izan da.

b)45 urtetik gorako adingabeen familiak; hala ere, pobrezia egoeraren aurrerapen esanguratsua antzeman da 45 eta 64 urte bitarteko pertsonengan

DBE/EPO/GLL sarrerak gutxitzeagatiko murrizketa- puntuak		12,3	5,3	4,3	0,1	1,0

Iturria: PGDI, 2008 eta GZE-BSI 2014



Iturria: PGDI, 2008 eta GZE-BSI 2014



4. Euskadiren egoera Europako testuinguruan

Krisiak Europako hegoaldeko herrialdeetan izan duen eraginaren ondorioz Euskadik askoz posizio txarragoa lortu du Europako pobrezia eta prekarietatea konparatzen dituzten adierazleei dagokienez.

Egoerak okerrera egin du pobrezia erlatiboaren tasak (medianaren %60tik behera dauden pertsonen %) 2014. urtean EB-28ko maila (%18,5 eta %16,7) gainditu duelako Euskadin. Datu horiek ezin dira erabat konparatu, erreferentziako atalaseak desberdinak baitira¹⁶, baina agerian geratzen da Europan prekarietatearen eragin txikiagoa izan duten estatuekin alderatuta tarte handiagoa dagoela.

Estatu bakoitzaren atalaseak konparazioa egiteko erreferentzia moduan hartzen badira, eta Euskadirako erosteko ahalmenarekiko parekotasunen arabera doitzen badira (atalase baliokideak EAPn), 2014. urtean medianaren %60tik behera egon diren pertsonen kopurua %30etik gora handiagoa izan da Euskadin beste herrialde hauetako tasekin alderatuta: Benelux (Belgika, Herbehereak eta Luxemburg), Iparraldeko herrialdeak (Danimarka, Suedia eta Finlandia), Austria eta Alemania baita Frantzia ere. Gainera, Erresuma Batuaren eta Irlandaren tasen antzekoak izan dira, baina azken kasu honekin alderatuta Euskadik tasa hobea lortu du.

Pobrezia larria izateko arriskuaren adierazleetan ere egin du egoerak okerrera (%40tik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonen kopurua). Euskadiko EAPren pareko tasak berriz izan dira, oro har, Europan gizarte aldetik aurrerratuagoak diren herrialdeetako tasak baino %30 handiagoak. Baina orainoan, desberdintasun erlatibo horiek ez dakartzate pobrezia erlatiboaren adierazle konparatuetan antzeman diren 7 puntutik gorako desberdintasun absolutuak. Luxemburgen kasuan izan ezik, Euskadiko pobrezia larriaren eragin konparaturik handienak 3 eta 4 puntuko aldea izan du beste herrialde hauetako eraginarekin: Frantzia, Alemania, Austria, Herbehereak eta Finlandia. Danimarka, Suedia eta Belgika herrialdeekin alderatuta tarte 1,4tik 2,4ra arteko tartera murriztu da.

Pobrezia erlatiboaren adierazleari dagokionez antzeman den desberdintasuna alde batera utzita, gainera, pobrezia larriaren adierazlean EAEko tasa EB-28ko tasaren azpitik geratu da, baita EB-15eko tasa azpitik ere (%4,9, %5,7 eta %5,5). Desberdintasun-egoerei lotuta dago errealitate hori; izan ere, nahiz eta desberdintasun kasuak 2008az gero gehiago izan Euskadin EBeko maila orokorretatik behera geratu da. EAEko GINI koefizientea (%27,1) EB-28ren (%30,5) eta EB-15en (%30,4) adierazleak baino ia 3,5 puntu beherago geratu da.

¹⁶ Eurostatek ez du eman Europar Batasuneko tasak zehazteko erabiltzen diren atalaseei buruzko informaziorik, eta orduan ezin da atera Euskadik atalase horiek oinarritzat hartuta edukiko lukeen tasa.

Pobreziaren, prekarietatearen eta desberdintasunaren adierazle konparatuak. EAE eta Europar Batasuneko estatu adierazgarrienak. 2013/2014

	Sarrerren medianatik beherako % EAEko tasa konparatzeko oinarri den lurraldearen atalasearekin		Sarrerren medianatik beherako % Lurralde bakoitzeko tasak		Gabezia larriaren %a	2 egunik behin proteinadun jatordurik ez dutenen %a	Ez ordaintzeen edo atzeratutako ordainketen %a	Arazo ekonomikoen gabe daudenen %a	Aparteko gasturik ordaindu ezin dutenen %a	GINI koef. %	S80/S20 indizea	Pobreene n % 10aren guztirako sarrerren %a
	40%	60%	40%	60%								
EAE	4,9	18,5	4,9	18,5	5,2	3,1	6,2	22,6	22,5	27,1	4,2	3,4
EB-28	DE	DE	5,7	16,7	9,6	10,6	11,8	39,4	39,7	30,5	5,0	3,0
EB-15	DE	DE	5,5	16,5	7,2	8,0	9,4	33,8	36,0	30,4	4,9	3,0
Luxemburg	14,9	36,2	3,5	15,1	1,8	2,4	5,2	15,9	23,8	30,4	4,6	3,3
Finlandia	6,3	21,7	2,2	11,8	2,5	3,2	11,2	14,9	27,5	25,4	3,6	4,1
Frantzia	6,7	22,6	3,0	13,7	5,1	7,4	9,2	28,0	33,9	30,1	4,5	3,6
Herbehereak	6,0	21,1	2,5	10,4	2,5	2,6	5,0	18,5	22,9	25,1	3,6	3,9
Alemania	7,5	23,2	4,2	16,1	5,4	8,4	5,1	22,4	32,9	29,7	4,6	3,2
Austria	8,2	24,5	4,9	14,4	4,2	8,3	7,0	21,1	23,2	27,0	4,1	3,2
Suedia	6,9	23,0	4,5	14,8	1,4	1,5	6,0	10,0	18,2	24,9	3,7	3,5
Danimarka	6,2	21,7	4,8	12,3	3,8	3,0	6,9	17,7	27,6	27,5	4,3	2,7
Belgika	5,3	20,0	3,9	15,1	5,1	4,6	6,5	27,3	24,2	25,9	3,8	3,7
Britainia Handia	4,4	16,1	4,4	15,9	8,3	8,7	3,9	33,3	41,1	30,2	4,6	3,2
Irlanda	4,2	14,7	4,7	15,7	9,8	3,9	23,6	50,6	56,4	29,9	4,7	3,1
Eslovenia	3,0	10,9	3,7	14,5	6,7	9,7	21,2	30,9	45,8	24,4	3,6	3,8
Txekiar Errepublika	1,4	5,0	2,3	8,6	6,6	13,1	5,4	39,5	41,7	24,6	3,4	4,2
Hungaria	0,7	1,8	4,0	14,3	26,8	33,0	26,2	66,6	74,2	28,0	4,2	3,5
Eslovakia	1,2	3,6	4,9	12,8	10,2	23,7	8,1	48,8	39,5	24,2	3,6	3,5
Italia	3,6	12,9	8,3	19,1	12,4	14,2	14,2	51,0	40,4	32,5	5,7	2,2
Polonia	1,0	3,1	5,8	17,3	11,9	13,3	15,1	60,6	50,5	30,7	4,9	3,1
Spainia	3,0	11,0	9,3	20,4	6,2	3,5	11,9	48,0	42,1	33,7	6,3	1,9
Portugal	1,0	3,1	8,0	18,7	10,9	3,3	11,8	59,8	43,2	34,2	6,0	2,5
Grezia	1,2	4,2	11,1	23,1	20,3	13,8	45,3	49,0	47,1	34,4	6,6	2,0

Iturria: GZE-BSI 2014 eta Eurostat

Europako datuak 2013koak dira; salbuespen dira, hala ere, Irlandako 2012ko datuak eta EAEko 2014ko datuak. Herrialdeak ordenatzeko kontuan izan da EAEREkin alderatuta pobrezia larriaren duen eragin txikiena edo handiena.

Konparatzeko oinarri den lurraldearen atalaseak kontuan hartzen dituzten pobrezia eta prekarietate tasak ateratzeko, EAERI atalase horiek aplikatu zaizkio, erosteko ahalmenaren parekotasunean doituta.



Aipatu adierazle guztietan EAEn errealitatea Europako hegoaldeko herrialdeena baino hobea izaten jarraitzen du; pobrezia larriaren eta pobrezia erlatiboaren tasak txikiagoak dira Euskadin. Pobrezia larriari dagokionez, eta Espainiako atalasea aintzat hartuta, Euskadik adibidez %3ko tasa izan du eta Estatu osoak %9,3koa. Ildo berean, EAPren baliokidea den atalasearen arabera Italiako pobrezia larriaren tasa Euskadikoa halako bi baino handiagoa izan da (%8,3 eta %3,6). Desberdintasun horiek eman dira, era berean, ongizate-gabeziaren adierazleetan ere (diru-sarrereren medianaren %60tik beherako pertsonen %20,4 Espainian eta %11 Euskadin, Espainiako atalasearen arabera; %19,1 Italian eta %12,9 EAEn, Italiako atalasearen arabera EAP baliokidean).

EAEn desberdintasun askoz gutxiago daudelako eman dira alde horiek. Biztanle aberatsenen %20k biztanle pobreenen %20k baino sarrera 4,2 aldiz handiagoak dituzte, baina zifra hori 5,7 da Italian eta 6,3 Espainian. EAEn biztanle pobreenen %10ek sarrereren %3,4 dute; baina proportzio hori %2,2 besterik ez da Italian eta %1,9 Espainian, azken hau Europar Batasuneko estatuen arteko zifra txikiena.

Era berean azaldu behar da Euskadiren eta Europako herrialde aurreratuenen arteko desberdintasun horiek batez ere arriskuaren adierazle orokorretan eman dira. Pobrezia larrienarekin zuzenean lotuago dauden adierazleak aztertu dira, elikatzeko arazoaren eragina edo ez-ordaintzeen eta atzeratutako ordainketen eragina adibidez, eta Euskadin datu onagoak atera ditu. Adierazle horietan soilik Luxemburg, Herbehereak eta Suedia geratu dira beti EAEkoa baino egoera hobean; orokorrean puntu 1etik beherako aldea izan dute. Gainera, Euskadiko zifrak argi eta garbi Europako batezbestekoetatik aldentzen dira: Euskadin bi egunik behin proteina-janaririk ez duten pertsonak %3,1 dira, EB-28n %10,6 eta EB-15 zaharreen %8; Euskadin %6,2 dira ez-ordainketak edo atzeratutako ordainketak dituztenak, EB-28n %11,8 eta EB-15ean %9,4.

Alderaketa hori Euskadiren aldekoa da, eta gabezia material larriaren kasuan ere berdin gertatzen da: EAEn %5,2 daude egoera horretan, EB-28n %9,6 eta EB-15ean %7,2. Kasu honetan, EAEko adierazlea Frantzia, Alemania edo Belgika herrialdeetakoaren antzekoa izan da; eta ez da oso urrun geratu Austriako edo Danimarkako %3,8 eta %4,2 tasetatik. Soilik Luxemburg, Herbehereak, Suedia eta Finlandia geratu dira Euskaditik urrun, gabezia material larriaren tasak %1,4 eta %2,5 artekoak direlako herrialde horietan.

EAEk postu deigarria duen beste dimentsio bat hau da: aparteko gastuak ordaintzeko gutxieneko aurrezkiak edukitzea. Mota honetako gastuak ordaintzeko baliabiderik ez duten familietako pertsonen %22,5ek Euskadin, %39,7k EB-28n eta %36k EB-15ean. %18,2arekin, soilik Suedia geratu da adierazle honetan EAEn azpitik.



Eranskina: adierazleen eta definizioen glosarioa

Eranskin honetan, labur-labur daude bilduta txostenean garatutako edota kontuan hartutako adierazleei dagozkien alderdi nagusiak, lotutako definizio nagusiak aintzat hartuta¹⁷.

1. Pobrezia eta prekaritatea mantenuari edo diru-sarrerei dagokienez

Egoera ekonomiko txarra zenbait modutan nabarmentzen da. Zenbait etxekoen unitatetan, eskura duten errenta-maila edota diru-sarrera maila nahikoa ez izanik, nahiko zaila gertatzen da ohiko gastu-mailak mantentzea eta premiei aurre egitea. Hain zuzen ere, arestian aipatu dugun mantentze-estutasun hori etxekoen unitate horietan jasaten duten arazoekin lotuta dago.

Herritarrek eskura dituzten diru-sarrerak edo errentak ez dira etxekoen unitateen baliabide ekonomiko bakarrak —kontuan hartzekoa da beharrezkoa izanez gero, ondasun-baliabideetara edo kreditura, edo kanpoko beste edozein laguntzataraz jotzeko aukera ere badagoela—. Horrenbestez, mantentze-problematikek zerikusit handiagoa dute estutasun-egoera potentzialekin premiei aurre egiteko benetako egoerekin baino. Azken buruan, mantentze-arazoak arrisku-egoerak direla esan dezakegu.

Funtsean, PGDI honetan aintzat hartu diren mantentze-arazoak bi multzo hauetan banatzen dira:

- a) Pobrezian erortzeko arrisku-egoerak. Zenbait etxekoen unitatetan eskura dituzten diru-sarrerak urriak izan daitezke premiarik funtsezkoenen gastuei aurre egiteko —elikadura, etxebizitza, jantzi eta oinetako gastu ohikoekin zerikusia dutenak, bereziki—.
- b) Ongizate-gabeziaren arrisku-egoerak. Kasu honetan gauza ez da oinarrizko premiei aurre egitera mugatzen. Ongizate-gabeziaren arrisku-egoeran dauden pertsonak bestelako arazoa dute; hain zuzen, beren diru-sarrerak urriak izan daitezke gizarte jakin batek ezarritako gutxieneko ongizate- eta erosotasun-mailak mantentzeko beharrezko ohiko gastuei aurre egiteko (kasu honetan, euskal gizarteak jarritakoei aurre egiteko).

Mantenu-pobrezia eta ongizate-gabeko egoerak neurtzeko era asko dago; horri buruzko metodologia bakar bat ez dago, beraz. Txosten honetan azaltzen diren datu nagusiak, funtsean, Eusko Jaurlaritzak erabilitako metodologiaren arabera zenbatu dira, 1986an garatutako azterketatik abiatuta (PGDI metodoa). Dena dela, mantenu-pobreziaren azterketara hurbiltzeko beste metodo batzuk —bereziki, Europar Batasunak eta Eurostatek, eta Leydenen eskolak garatutakoak— aplikatuz lortu den informazioa ere eskaintzen da.

¹⁷ Eranskin honetan garatzen ez diren beste definizio batzuk kontsultatu nahi izanez gero, jo Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak argitaratutako *1984-2008. 25 urtez pobretasuna ikertzen Euskadin* dokumentura.

1.1. Definizioak

Mantenu-pobreziaren aurrean etxekoen unitateen posizioa aztertzeko garaian, PGDIan hiru egoera bereizten dira: pobrezia-egoera; ongizate-gabezia egoera, baina ez pobreziarena; eta azkenik, ongizate-egoera.

a) Mantenu-pobrezia

Mantenu-pobrezia baliabide ekonomikoen eskasia-egoerarekin loturik dago; hain zuzen ere, oinarrizko premiak (bereziki elikaduraren, etxebizitzaren, jantzien eta oinetakoen gastuekin loturikoak) era erregularrean betetzeko adina baliabide ez izatearekin. Pobrezia-arriskuan daude honako hauek: aintzat hartutako erreferentzaldian, oinarrizko premiei aurre egiteko ezarritako atalaseen azpiko diru-sarrerak dituzten pertsona, familia edo etxekoen unitateak.

b) Ongizaterik eza, mantenuari dagokionez

Mantenuari dagokionez, ongizate-gabeziarekin loturiko arazoak baliabide ekonomikoen eskasia-egoera adierazten du, epe motzera, gizarte jakin batek ezarritako gutxieneko ongizate- eta erosotasun-mailak mantentzeko beharrezko ohiko gastuei aurre egiteko. Praktikan, gizarte jakin horren bizimodu, ohitura eta jarduera arruntetan parte hartzea ahalbidetzen dute, gutxieneko baldintzetan bada ere. Ongizate-gabezia arriskuan daude honako hauek: aintzat hartutako erreferentzaldian, bizi diren gizartean gutxienekotzat hartutako ongizate-maila lortzeko ezarritako atalaseen azpiko diru-sarrerak dituzten pertsona, familia edo etxekoen unitateak.

c) Ongizatea, mantenuari dagokionez

Egoera horretan daude, mantenuari dagokionez, ongizate-gabeziaren edo pobreziaren arazorik ez duten pertsona, familia edo etxekoen unitateak. Epe motzera, ez dute baliabide-eskasiaren egoerarik izaten oinarrizko premiak betetzeko, ezta ezarritako ongizate-egoerara iristeko beharrezko gutxieneko gastuei aurre egiteko ere.



1.2. Mantenu-pobreziaren eta -prekarietatearen PGDI adierazleak

PGDIk Leydenen erregresio-eredua aplikatzen du bi atalase osagarri lortzeko: pobreziarena, zentzu hertsian, eta ongizate-gabeziarena. Atalase bakoitza zehazteko ekuazioa hauxe da:

$$Y^* \min = \hat{a}0 + \hat{a}1fs + \hat{a}2g$$

Osagaiak ondorengoak izanik:

$Y^* \min$: pobreziaren edo ongizate-gabeziaren atalasea, kasuaren arabera

fs : Familiaren neurria

g : Familietako ohiko gastua

Gerturatze honetan, $ymin$ aldagaiak (horretatik eratortzen da $y^* \min$ aldagaia) honako galderekin elkarrizketatutako etxeek emandako erantzunei dagozkien eremu-lanetatik lortutako emaitzak ditu abiapuntu:

* *Zuen etxeen unitatearen egungo egoeran, zein da, egiaz, hilaren amaierara iristeko beharrezko gutxienerako diru-sarrera? (ongizaterik ezaren atalasea kalkulatzeko) eta;*

* *Zuen etxeen unitatearen egungo egoeran, zein da, egiaz, oinarrizko premiak betetzeko beharrezko gutxienerako diru-sarrera? (pobrezia-atalasea kalkulatzeko).*

Gastuaren g aldagaia, honako galdera honi etxeen unitateek emandako erantzunetatik abiatuta lortzen da: *Batez beste, zenbatekoak dira familia honen hileko gastuak?*

PGDIren metodoak pobrezia gaitzeko edo, norberaren bizi-zikloaren unearen arabera, ongizate-maila nahikora iristeko beharizan-atalase desberdinetara jotzen du. Ondorio praktikoetarako, bizi-zikloa etxeen unitateko bizikide nagusiaren adinean oinarrituta neurtzen da. Hiru etxeen unitate mota hartzen dira aintzat, etxeen unitateko bizikide nagusiaren adinaren arabera: 45 urtetik beherakoak, 45-64 urtekoak eta 65 urtetik gorakoak. Aipatu behar da, 2012tik nolabaiteko konbergentzia nabaritu dela adineko atalaseetan.

Metodoaren aplikaziotik honako atalase hauek deribatzen dira 2014an:

Mantenu-pobreziaren eta ongizate-gabeziaren atalaseak, PGDI metodoaren arabera. 2014
(Datuak euroetan)

Etzekoen unitatearen tamaina	< 45 urte		45-64 urte		> 65 urte	
	Pobrezia	Absentzia Ongizatea	Pobrezia	Absentzia Ongizatea	Pobrezia	Absentzia Ongizatea
Lagun 1	846,00	1.167,82	780,86	1.099,50	661,34	916,55
2 lagun	1.077,71	1.480,12	1.003,09	1.485,17	861,06	1.237,48
3 lagun	1.241,64	1.700,21	1.161,36	1.770,77	1.004,79	1.475,06
4 lagun	1.372,87	1.875,94	1.288,58	2.006,12	1.121,09	1.670,80

Iturria: GZE-BSI, 2014.

1.3. Mantenu-pobreziaren eta -prekarietatearen Eurostat adierazleak

PGDIan Eurostaten honako adierazle hauek erabiltzen dira, mantenu-pobrezia eta -prekarietatea neurtzeko:

a) Pobrezia larriaren adierazlea:

Eskuragarri dauden diru-sarrera garbien batez bestekoaren % 40 baino gutxiago duten pertsonak edota etzekoen unitateak, *per capita* errentaren baliokide

b) Diru-sarrera apalen edota pobrezia-erlatiboaren adierazlea:

Eskuragarri dauden diru-sarrera garbien batez bestekoaren % 60 baino gutxiago duten pertsonak edota etzekoen unitateak, *per capita* errentaren baliokide

Metodoak honako baliokidetasun-eskala baliatzen du (ELGA eskala zuzendua):

- Lehenengo heldua: 1,0
- Heldu osagarri bakoitza: 0,5
- 14 urtez azpiko seme-alaba bakoitza: 0,3

Hauek dira gerturatze honi dagozkion atalase espezifikoak:

Diru-sarrera txikien eta pobrezia larriaren atalaseak, Eurostat metodoaren arabera. 2014
(Datuak eurotan)

Etzekoen unitatearen tamaina	Pobretasun larria	Pobrezia erlatiboa Diru-sarrera txikiak
Lagun 1	541,27	811,90
2 lagun	811,90	1.217,86
3 lagun	974,29	1.461,43
4 lagun	1.137,67	1.705,00

Iturria: GZE-BSI, 2014.

0,5 eskala bigarren pertsonarentzat eta 0,3 gainerako pertsonentzat.



PGDIk, era berean, pobrezia- eta bazterketa-tasei dagokien informazioa ere biltzen du (ARPE). Tasa horien esanahiaren xehetasun metodologien berri izateko, ikus Eustaten orri hau:

http://www.eustat.es/documentos/datos/PI_metod/INDES_europa2020_80_e.asp#axzz3AUyl4xde

1.4. Pobrezia- eta prekariedade-adierazleak tratatzeko erabilitako indizeak

Bai PGDI metodoan, bai Eurostaten, pobrezia- eta prekariedade-adierazleak hainbat indize estatistiko kontuan hartuta zehatz daitezke. Hauek dira nagusiak:

a) H indizea, edota pobrezia- edota ongizate-gabeziaren tasa orokorra

PGDI txostenetan eta tauletan baliatu ohi den adierazleak pobrezia-arriskuaren edota ongizate-gabeziaren tasari egiten dio erreferentzia. Honela zehazten da:

$$H = q / n$$

Osagaiak ondokoak izanik:

q : kontuan hartutako egoerak eragindako populazioa.

n : populazio osoa.

b) Foster, Greer eta Thorbecke (FGT) indizeak

Indizeok honako formula dute oinarri:

$$FGT_{\infty} = (1/n) \sum_{i=1}^q (g_i / z)^{\infty-1}$$

Hala definitzen dira, ∞ -ri esleitutako balioetatik abiatuta, FGT(1), FGT(2), FGT(3) eta FGT(4). FGT(1) H pobrezia-tasaren berbera da.

Gainerako FGT adierazleei dagokienez, txostenean FGT(2) indizea baliatzen da, HI indizearen baliokidea

$$HI \text{ indizea} = H * I$$

Osagaiak ondokoak izanik:

H : pobrezia-tasa (edo ongizate-gabeziarena).

I : Sen indizea.

PGDIan, HI edo FGT(2) indizea erabilgarritasun handiko indizetat hartzen da mantenu-pobrezia eta -prekarietate egoeren segimendua egiteko. Indize horrek, hain justu, pobrezia neurtzeko kontuan hartu beharreko elementuak hartzen ditu aintzat: intentsitatea, distantzia eta barne-desberdintasuna. Gainera, interpretazio soziala erraza da transmititzen; izan ere, indizea pobrezia edota ongizate-gabeziaren tasa teoriko baten baliokide da, non eragindako guztiak erabateko bitarteko-gabezia kasuan leudekeen, hau da, batere diru-sarrerarik gabe.

c) Sen I indizea (income gap ratio):

$$I = (g / qz)$$

Osagaiak ondokoak izanik:

$$g: \sum_{i=1}^q g_i = z - y$$

g_i honako hauen baliokidea da: ezarritako pobrezia edota ongizate-gabeziaren arteko lerroaren (zz eta etxeko diru-sarreraren (y) arteko distantzia.

g osagaiak, berriz, diferentzia hauen arteko batura biltzen du, analisisian kontuan hartutako egoera bizi duten populaziorako.

q : kontuan hartutako egoerak eragindako populazioa.

z : batez besteko pobrezia-lerroa (edo ongizate-gabeziarena).

Adierazle horrek adierazten du prekarietate-egoeran dauden etxekoen unitate edo pertsona multzoak metatutako distantzia, kontuan hartzen diren pobrezia eta ongizate-gabezi atalaseekiko. Ehunekotan neurtzen da.

1.5. Erabilitako sarrera kontzeptua

Mantenu-pobrezia eta -prekarietatea kalkulatzeko eta neurtzeko, honako honi egiten dio erreferentzia etxekoen unitateen sarreraren edo errenta erabilgarriaren kontzeptuak, PGDIk erabilitakoak: lau iturritatik datozen diru-sarrera **garbien** baturari, hilabeteka kalkulaturik. Hona hemen iturriok:



a) Diru-sarrera propioak, lanetik eta kapitalaren etekinetatik etorritakoak.

Lanetik eta kapital propioa ustiatzetik etorritako mota guztietako diru-sarrera gordinak sartzen dira, Ogasunaren ordainketei edo itzulketei lotutako doikuntzak barne.

b) Gizarte Segurantzaren prestazioetatik etorritako diru-sarrerak eta antzekoak.

Honako hauek sartzen dira: erretiroagatiko, alarguntzagatiko, zurtasunagatiko, familiarteko mesedeagatiko edo baliogabetasunagatiko Gizarte Segurantzaren prestazioak, ordaindutakoaren araberakoa edo ordaindutakoaren araberakoa ez dena; erretiroa aurrez hartzeagatiko prestazioak; langabeziagatiko prestazioak edo subsidioak, lanbide heziketari, enplegu-sustapenari, mugikortasuneko subsidioei eta berrinstalazioari lotutakoak barne; eta familia zaintzeagatiko (jaiotza, amatasuna, haur edo helduen zaintza) eta norberaren kargura dauden seme-alabak zaintzeko aldizkako prestazioak.

c) Gizarte-laguntzatik etorritako diru-sarrerak eta beste gizarte-laguntza batzuk.

Honako hauek sartzen dira: Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentatik, Etxebizitzarako Prestazio Osagarritik eta Gizarte Larrialdiko Laguntzatik datozen diru-sarrerak; Emantzipazioko Oinarrizko Errenta (oraindik indarrean dagoen partean); jaiotzagatiko edo adopzioagatiko ordainketa bakarreko prestazioak; ikasketa-beken, adingabeentzako laguntzaren eta bestelako laguntza asistentzial publikoen (udalek, aldundiek eta abar emandakoak) ondoriozko diru-sarrerak.

d) Gizarte zibilaren laguntza osagarrietatik etorritako diru-sarrerak.

Honako hauek sartzen dira: senideek, lagunek edo bizilagunek zuzenean emandako laguntzetatik etorritako diru-sarrerak, bai eta laguntza-erakunde partikular edo pribatuek (Cáritas, Gurutze Gorria eta tankerakoak) emandakoetatik etorritakoak ere.

Kontaketa egiteko, etxekeoen unitatea (edo etxekeoen unitatearekin pareka daitekeen etxekeoen unitatea) hartzen da aintzat, oro har. Horrekin loturik, hertsiki pertsonalak diren sarreretan oinarritutako berariazko adierazleak eskaintzen direnetan izan ezik, honako prozedura hau jarraitzen du PGDIk banakako adierazleei dagokienez: pertsona bakoitzari etxekeoen unitateko kide guztiei dagokien errentaren zati proportzionala ematen dio. Pertsona bakoitza pobrezia edo prekarietateren arriskupean nola, hala egongo da etxekeoen unitatea bere osotasunean.

1.6 Gabetze-adierazleak

Elikadura egokia izatekoa arazoak

a) USDAREN (FSS) ADIERAZLEAK

2000. urtean, «Short Form of the 12-month Food Security Scale» (FSS) eskala erabiltzen hasi ziren, eta hori aplikatzearen ondorio dira adierazleok. Estatistika-metodo hori Ameriketako Estatu Batuetan diseinatu zuten komunitate jakin baten elikadura-arazoak neurtzeko eta Estatu Batuetako Nekazaritza Sailak (USDA) puntualki erabiltzen du herrialde horretan. Metodoa, sinplifikatutako bertsioan, sei galderaz osatuta dago, eta helburua hiru biztanle-kategoria handi mugatzea da, elikadura-premien estalduran izandako segurtasun-posizioaren arabera. Hona hemen kategoriak:

- * Elikadura-premien estalduran segurtasuna duten etxeen unitateak.
- * Segurtasunik gabeko etxeen unitateak, baina elikadura-premien sarbideari dagokionez muturreko estaldura-gabeziako egoera bat (elikadura-arazo larriak) islatzen duten elkarturiko adierazlerik gabeak.
- * Segurtasunik gabeko etxeen unitateak, elikadura-premien sarbideari dagokionez muturreko estaldura-gabeziako egoera bat (elikadura-arazo larriak) islatzen duten elkarturiko adierazleekin. Errealitate hori gose-egoeren edo gertuko egoeren pertzepzioarekin lotzen da (elikadura-arazo oso larriak).

Azken bi kategoriek elikadurari lotutako segurtasunik ezeko arazoak dituzten etxeen (etxeen pertsonen) osotasuna definitzen dute.

Kategoriak definitzeko, inkesta egin aurreko urteko egoera hartzen da aintzat.

FSS galdetegia aplikatzeko, gosearen pertzepzioari zuzenean lotutako galdera bat aurreikusten da: *Gose izanik, geratu zarete jan gabe behar adina janari lortu ez izanagatik?*



b) EU-SILCen adierazlea

2004ko eragiketaz geroztik, elikadura-segurtasunik ezaren arazoetara hurbildu gara; horretarako, Europako EU-SILCen sartutako elikadura-adierazle nagusia hartu dugu aintzat. Adierazleak bi egunez behingo funtsezko otordu bat ordaindu ezin duen populazioaren proportzioa jasotzen du (janari proteinaduna: haragia, arraina, edo baliokidea, barazkijaleen kasuan).

PGDIn, adierazle hori lortzeko, honako galdera hau hartu da oinarri:

Ba al duzu bi egunean behin haragia, oilaskoa edo arraina duen otordu bat egiteko adina diru (edo baliokidea, barazkijale izanez gero)?

2014an adierazle hori buruzko informazioa inkesta egiteko uneari aplikatzen zaio. Beraz, gaurko egoera islatzen du, ez azken urtean zehar egondako esperientzia.

Zorpetze-arriskua

Zorpetze-arriskua ageri den egoeretan, honako baldintza hauek betetzen dira:

- * Etxekoen unitateko hileko gastuak diru-sarrerak baino handiagoak dira.
- * Ez dago hurrengo hileko ohiko gastuei aurre egiteko aurrezkirik, edo aurrezkiak ez dira nahikoa.

2. Metatze-pobrezia eta -prekarietatea (bizi-baldintzak eta erreserbako ondarea).

Estutasun ekonomikoak metatzea diogunean, gure gizartearen ohiko estandarretatik beherago dauden bizi-baldintzak aipatzen ari gara. Bizi-baldintza horiek oinarrizko ondasunak eskuratzeko ahalmenarekin dute zerikusia; ondasun horiek zehazten dute etxekoen unitateen epe luzeko esparrua zer-nola mamitzen den. Horren haritik, metatze-prekarietateak etxekoen unitateen kontsumo iraunkorreko ondasunak eta zerbitzuak —epe luzera bizitza-maila egokia mantentzeko beharrezkoak— eskuratzeko ezintasunarekin du zerikusia.

Metatze-prekarietatea honekin ere lotzen da: etxekoen unitateek, diru-sarrerako egoeraren arabera krisialdian, bizi ekonomiko normalizatuari eusteko aurre egiteko beharrezko gutxieneko ondare-baliabideak metatzeko dituzten zailtasunak.

Egoera honetan, metatze-pobrezia horrek ezaugarri hauek dauzka: batetik, erreserba-ondare ia baliogabea, eta, bestetik, bereziki, bizitza baldintzen gabezi larriak ohiko etxebizitzaren ezaugarriekin zerikusia duen guztiarekin (bizigarritasuna, instalazioak eta ekipamenduen maila). Ongizate-gabezi egoerak lotzen zaie epe luzeko kontsumoko ondasun eta zerbitzuak —horiek bermatzen dute, epe luzera, gizarteak espero dituen ongizateko bizi-egoerak— lortzeko zailtasunei.

Metatze-pobrezia eta prekarietatearen egoeretara hurbiltzeko, etxeen egoera aztertzen da PGDIIn, bizi-kalitateari dagozkion adierazle batzuk aintzat hartuta; batetik, etxebizitzaren instalazioak eta ekipamenduak aztertzen dira, eta, bestetik, ondare-baliabideak (etxebizitza, bestelako ondare-ondasunak, metatutako aurrezkiak eta ibilgailuak). 2012tik aurrera, Europar Batasunak ezarritako gabetze-adierazleen sistema hartzen da kontuan AROPE-adierazleak finkatzean, eta adierazleak hartzen dira aintzat metatze-dimensioan prekarietatearen neurketarekin lotutako gabeziatarako.

2.1. Definizioak

a) Metatze-pobrezia

Metatze-pobreziak egoera espezifiko bat baino egoera orokor bat adierazten du; hain zuzen ere, behar adinako bizi-mailari epe ertain eta luzean eusteko beharrezkoak diren kontsumo-ondasun iraunkorrak lortzeko prekarietate-egoera diferentziala, bereziki, etxebizitza egokia eta ongi hornitua lortzeko gaitasunari dagokionez, betiere gutxieneko bizigarritasun-arauak betez. Epe ertainean eta laburrean prekarietate-agertoki gisa, metatze-pobrezia honako hauekin ere lotzen da: diru-sarreraz krisialdi-edota larrialdi-egoera berezietan, etxekoen unitateek bizimodu normalizatu bati aurre egiten jarraitzeko beharrezkoa duten gutxieneko ondare-bitartekoak metatzea, horrekin nolabaiteko segurtasun ekonomikoa ziurtatuta.



b) Prekarietatea metatze-dimentsioan

PGDIk hainbat prekarietate-egoera mugatzen ditu metatze-dimentsioan. Honako prekarietate-egoera hau biltzen du: pobrezia-egoeratzat hartzerik ez dagoena, baina gizartean ohiko hartzen diren epe ertaineko eta luzeko kontsumo- eta zerbitzu-ondasunei sarbiderik eza bereizgarri duena.

2.2. Metatze-pobrezia- eta -prekarietatearen PGDI adierazleak

2012tik aurrera aplikatutako PGDI adierazlea

AROE adierazle-sisteman gabeziarekin lotura duten alderdiak balioetsi izanak bide berriak ireki ditu PGDI-n pobrezia- eta metatze-prekarietatearen azterketa eguneratzeko premiazko prozesuan. AROPE sistema aintzat hartzeak bide ematen du, bereziki, pobrezia-ekin hertsiki lotuta ez dauden ongizate gabeziako hainbat egoera hobeto bereizte aldera aurrera egiteko. Errealitate berri hori kontuan harturik, metatze-pobrezia- eta -prekarietateko PGDI adierazlea eguneratu da 2012ko eragiketatik aurrera.

Adierazle berriak mugatutako kategoriak ondorengo arrisku egoera hauen presentziaren edo presentzia ezaren arabera ezarri dira, pobrezia- eta prekarietateari buruz dagoen gizarte pertzepzioarekin duen erlazioa aztertu ostean:

* ARRIS1

Etxebizitzan zenbait **oinarrizko instalazio** edukitzea balioesten du: ur beroa, argindar instalazioa, komuna eta bainuontzia edo dutxa.

1eko balioa hartzen du etxebizitzak instalazio horietakoren bat edo gehiago ez badauzka.

* ARRIS2

Ondorengo **oinarrizko ekipamenduetakoren** baten gabezia balioesten du: hozkailua, sukaldea (etxetresna), arropa-garbigailua, labea edo mikrouhin labea, telebista edo telefonoa.

2ko balioa hartuko du esandakoetatik bi elementu edo gehiago falta badira, eta 1eko balioa, bat falta baldin bada.

* ARRIS3

Ondorengo alderdi hauekin zerikusia duten **etxebizitzako beste arazo batzuen** presentzia balioesten du: hezetasun-arazoak (itoginak; hezetasunak horma, zoru, sabai edo zimenduetan; usteldurak leiho-markoetan, ateetan edo zoruan); etxebizitzaren azalera kide kopurua bider 20 m² baino txikiagoa izatea; zarata eta kutsadura arazoak; eta etxebizitza iluna, nahiko argirik gabea, edo argi natural urrikoa izatea.

1eko balioa du aipatutako gabezia horietako bi edo gehiago izanez gero.

2ko balioa hartuko du, aurreko baldintza betetzeaz gainera, ongi ekipatutako, zaindutako eta kontserbatutako etxebizitza baten baldintzak inondik ere betetzen ez dituen etxebizitza baldin bada.

Era berean, 2ko balioa izango du bi gabezia edo gehiagoren presentzia betetzen bada, komun eta/edo bainuontzi/dutxa ez edukitzearen arazo erantsiak kontuan hartuta. Aipatutako gabeziak nahikotzat har ez daitekeen etxebizitza bati lotzen zaizkio (ongi ekipatutako, zaindutako eta kontserbatutako etxebizitza den edo ez iriztean).

* ARRIS4

Hamar urtez azpiko ibilgailu bat ez izatea balioesten du.

1eko balioa du, ezaugarri horietako ibilgailu bat, gutxienez, ez baldin badu, arrazoi ekonomikoengatik.

2014an, hurbilketa 2012koarekiko doitzen da, erkaketa denboran gorde ahal izateko.

* ARRIS5

Epe ertaineko nolabaiteko aurrezte maila metatzeko ahalmenaren adierazle den neurrian, **ohiko bizilekutik kanpo astebeteko oporraldia** gutxienez izatea balioesten du.

1eko balioa du horrelako oporraldirik izan ez bada, azkeneko 12 hilabeteetan, arrazoi ekonomikoak direla medio.

* ARRIS6

Erreferentzia unitateak zenbat hilabetez eutsi ahal izango liokeen ohiko gastu-mailari eskuragarri dituen aurrezkiekin eta ondasunekin, ohiko etxebizitza salbuetsita (**erreserba-ondarea**).

1eko balioa dauka, baldin eta aurrezkiekin gastuari eusteko gaitasuna 3 eta 13 hilabete artekoa bada.

2ko balioa dauka, baldin eta gaitasunik ez badauka edo 3 hilabeterako baino gutxiagorako badauka.

Bazterketa-arrisku horiek eta esleitutako balioak kontuan izanik, honako egoerak zehazten dira pobrezia-ongizatea eskalan:



1. Pobrezia

Pobrezia-egoerak honako arrisku-tako baten presentziarekin lotzen dira, edo arriskuen konbinazioarekin, aurretik definitu ditugun moduan:

- * $ARRIS1 = 1$.
- * $ARRIS2 \geq 2$.
- * $ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 \geq 3$.
- * $ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 + ARRIS4 + ARRIS5 + ARRIS6 \geq 6$.
- * $ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 + ARRIS4 + ARRIS5 + ARRIS6 = 5$ ETA $[(ARRIS4 + ARRIS5 \geq 1$ ETA $ARRIS6 = 2)$ EDO $(ARRIS4 + ARRIS5 = 2$ ETA $ARRIS6 = 1)]$.

Horrek esan nahi du metatze-dimentsioan pobrezia-egoerak honako egoerekin edota zirkunstantziekin lotuta daudela:

- * Etxebizitzaren oinarrizko instalazioetan gabeziaren bat agertzea.
- * Etxebizitzaren oinarrizko instalazioetan bi gabezia edo gehiago agertzea.
- * Oinarrizko instalazioetan, oinarrizko ekipamenduetan edota etxebizitzaren beste arazo batzuetan, 3ko balioa edo handiagoa.
- * Adierazlea eraikitze kontuan hartzen diren gabezia multzoan 6 puntuko edo gehiagoko balioa.
- * Adierazlea eraikitze kontuan hartzen diren gabezia multzoan 5 puntuko balioa, gehi honako hiru zirkunstantzia hauek ere agertzea:
 - Ohiko gastu-mailari urtebetez baino gehiagoz eusteko behar beste erreserba-ondare ez edukitzea;
 - Etxebizitzaren instalazioekin eta ekipamenduarekin lotuta ez dauden epe ertaineko eta luzeko kontsumo-ondasun eta -zerbitzuak izateko oinarrizko gabezia bat, arrazoi ekonomikoak direla-eta (hamar urte baino gutxiagoko ibilgailua edota etxetik kanpora gutxienez hamar eguneko oporraldia egiteko aukera);
 - Eta 3 puntuko edo gehiagoko balioa azkena aipatutako ondasun eta zerbitzu mota horiek izatearekin eta erreserba-ondarearekin lotutako adierazle multzoan.

2. Ongizate-gabezia

Metatze-dimentsioan ongizate-gabeziarekin lotutako arazoak aurreko kategorian bilduta ez dauden arazoiekin dute zerikusia, eta etxekoan unitateko arrisku-metatzen honen presentzia erakusten dute:

- * $ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 + ARRIS4 + ARRIS5 + ARRIS6 \leq 4$ ETA $[(ARRIS4 + ARRIS5 \geq 1$ ETA $ARRIS6 = 2)$ EDO $(ARRIS4 + ARRIS5 = 2$ ETA $ARRIS6 = 1)]$.

Arazo mota hori ageriko da, baldin eta adierazlea eraikitzeke kontuan hartzen diren gabezia multzoan 4 puntuko balioa gehi honako hiru zirkunstantzia hauek ageri badira:

- Ohiko gastu-mailari urtebetez baino gehiagoz eusteko behar beste erreserba-ondare ez edukitzea;
- Etxebizitzaren instalazioekin eta ekipamenduarekin lotuta ez dauden epe ertaineko eta luzeko kontsumo-ondasun eta -zerbitzuak izateko oinarrizko gabezia bat, arrazoi ekonomikoak direla eta (hamar urte baino gutxiagoko ibilgailua edota etxetik kanpora gutxienez hamar eguneko oporraldia egiteko aukera);
- Eta 3 puntuko edo gehiagoko balioa azkena aipatutako ondasun eta zerbitzu mota horiek izatearekin eta erreserba-ondarearekin lotutako adierazle multzoan.

3. Gutxieneko ongizatea

Metatze-dimentsioan gutxieneko ongizate egoera batera iristen garela esango dugu, baldin eta aurreko kategorietan adierazitako zirkunstantzia problematikoak ageri ez badira baina adierazlea eraikitzeke kontuan hartzen diren gabeziatako bat gutxienez ageri bada, betiere honako baldintza hau beteta:

$$\text{ARRIS1} + \text{ARRIS2} + \text{ARRIS3} + \text{ARRIS4} + \text{ARRIS5} + \text{ARRIS6} \geq 1.$$

4. Erabateko ongizatea (gabeziarik gabe).

Metatze-dimentsioan bada erabateko ongizate-egoera bat, aztertutako arrisku-adierazleetan batere gabeziarik ez dagoenean, osagaiak honakoak izanik:

$$\text{ARRIS1} + \text{ARRIS2} + \text{ARRIS3} + \text{ARRIS4} + \text{ARRIS5} + \text{ARRIS6} = 0.$$



3. Benetako pobrezia eta prekarietatea

Baliteke batzuetan metatze- eta mantenu-pobreziaren adierazleek arrisku-egoera ez erakustea, konpentsatzeko joera ager baitaiteke hainbatetan; adierazle horiek ez bezala, benetako pobrezia- eta prekarietate-adierazleek **beharrak asetzeko benetako eskasia-egoeratzat har daitezkeenak** zehazten dituzte –gizartearen ikuspegi orokorra aintzat hartuta–. Kasu horietan, pobrezia edota prekarietatea bizitzea errealitatea da gizartean nagusi diren kontzepzioak aintzat hartuta (baina ez nahitaez eragindako pertsonen pertzepzioaren arabera).

3.1. Definizioak

Pobrezia errealtzat hartuko ditugu honako zirkunstantzia hauek: oinarrizko premiak asetzeko ezintasunaren arrisku-egoera nabari denean eta egoera hori ez denean behar beste konpentsatzen biztanleen eguneroko bizimoduan, ez, behintzat, gutxieneko ongizate-mailara iristeko moduan, pobreziatik kanpo.

Gainerako benetako prekarietate-moduek beste egoera batzuei egiten diete erreferentzia: hain zuzen, gizartean itxaroten den gutxieneko ongizate-maila izateaz hitz egiteko **nahiko elementu konpentsatzaile** ageri ez direnean, eta ongizate-gabezia egoera benetakoak islatzen direnean (ez nahitaez pobrezian bizitzearekin lotuta).

3.2. Benetako pobreziaren PGDI adierazlea

PGDI 2012 adierazlea

PGDI 2012 adierazleak kontuan hartzen du 2012tik aurrera sartutako metatze-pobreziaren adierazle berria, eta gerturatze hertsiki objektiboa aukeratzen du benetako pobrezia- eta prekarietate-egoerak mugatzeko garaian.

Adierazlea eraikitzeko, mantenu- eta metatze-adierazleen posizioaz gain, tankerako beste prekarietate-elementu batzuk ere kontuan hartzen dira. Esanguratsuena azken urtean agertutako gabetze-egoerak agertu izana da. Gabetze-egoera horiek gertatzeko, honako zirkunstantziak agertu behar dute:

- * Elikadura-arazo oso larriak.
- * Elikadura-arazo oso larriak, bigarren eskuko jantziak eskuratu beharra edota negu-partean etxebizitzan tenperatura egokia mantentzeko zailtasunak izatea arazo ekonomikoak direla-eta, guztia ere oinarrizko gastuak murriztearekin lotuta.
- * Elikadura-arazo oso larriak izan ez, bigarren eskuko jantziak eskuratu beharra eta negu-partean etxebizitzan tenperatura egokia mantentzeko zailtasunak arazo ekonomikoak direla-eta, hauxe oinarrizko gastuak murriztearekin lotuta.

Beste prekarietate-adierazle batzuk ere ikusten dira: oinarrizko beharrak asetzeko etxekoan unitatean behar dena baino ohiko diru-sarrera txikiagoak izatea, edota zorpetzeko arriskudun egoerak.

Kontuan hartu beharreko egoera posible bakoitzaren inguruan nagusi den gizarte-pertzepzioa ikusirik, benetako pobrezia- edo prekarietate-adierazle definitutako kategoriak, eta haietako bakoitzak bildutako egoerak, honako hauek dira:

1. Benetako pobrezia

Honako egoera hauek biltzen ditu:

- * Mantenu- eta metatze-pobrezia biak agertzea.
- * Mantenu-pobreziako egoera bat eta metatze-dimentsioan ongizaterik ez izateko arazoak.
- * Mantenu-pobreziako egoera bat eta gutxieneko ongizate-errealitateak metatze-dimentsioan, errealitate hori azken urteetan izandako gabetze-arazoekin lotuta datorrenean. Horietan ohiko diru-sarrerak ez dira oinarrizko beharrianak asetzeko edota zorpetzeko arrisku bati erantzuteko bestekoak.
- * Mantenu-ongizaterik gabeko eta metatze-pobreziako egoera bat.
- * Mantenu-pobreziako egoera bat eta metatze-pobrezia, errealitate hori azken urteetan izandako gabetze-arazoekin lotuta datorrenean. Horietan ohiko diru-sarrerak ez dira oinarrizko beharrianak asetzeko edota zorpetzeko arrisku bati erantzuteko bestekoak.

2. Benetako ongizate-gabeziaren beste era bat

Pobrezia-kategorian kontuan hartutako egoerak albo batera utzita, kategoria honek honako egoerak biltzen ditu:



- * Ongizate-gabeziako egoera bat agertzea mantenu- eta metatze-dimentsioetan.
- * Metatze-pobreziadun beste mantenu-ongizateko egoera batzuk, benetako pobrezia-kategorian bilduta ez daudenak.
- * Ongizate-egoera bat mantenu-dimentsioan eta metatze-dimentsioan ongizate-gabeziarekin lotutako arazoak, errealitate hori azken urteetan izandako gabetze-arazoekin lotuta datorrenean. Horietan ohiko diru-sarrerak ez dira oinarritzko beharrianak asetzeko edota zorpetzeko arrisku bati erantzuteko bestekoak.

3. Ongizate- eta arrisku-elementuak

Pobreziarik eta ongizate-gabeziarik ez da gertatutako, ongizate-elementu nagusiekin baina arrisku-elementuekin, baldin eta aurreko kategorietan kontuan hartu gabeko zirkunstantzia hauek ageri badira:

- * Metatze-dimentsioan gutxieneko ongizate-errealitadedun mantenu-pobreziako beste kasu batzuk, aurreko kategorietan bildu gabeak.
- * Mantenu-pobreziako eta erabateko ongizateko egoera bat metatze-dimentsioan.
- * Mantenu-ongizaterik gabeko egoera bat, gutxieneko ongizate-mailarekin edota erabateko ongizatearekin metatze-dimentsioan.
- * Metatze-dimentsioan ongizate-gabeziako arazoak eta mantenu-dimentsioan ongizate egoera ageri duten beste kasu batzuk, aurreko kategorietan bildu gabeak.

4. Ia erabateko ongizatea

Kategoria honetan, mantenu-ongizatearen egoera bat gutxieneko ongizate-mailarekin lotuta ageri da (baina ez erabateko ongizatea) metatze-dimentsioan.

5. Erabateko ongizatea.

Kategoria honetan, mantenu-ongizatearen egoera bat erabateko ongizatearekin lotuta ageri da metatze-dimentsioan.

4. Desberdintasun-adierazleak

PGDIk, era berean, gizarte-desberdintasuneko adierazleak ere ematen ditu, eskuragarri duten errenta aztertuta batik bat.

Hauek dira PGDIk kontuan hartzen dituen desberdintasun-adierazleak:

a) S80/S20 erlazioa

Errentaren banaketan *per capita* errenta baliokidearen maila handiena duten pertsonen % 20ren eta errenta txikiena daukatenen % 20ren arteko erlazioa.

b) Gini koefizientea

Errentaren arabera banatutako populazioaren pisu metatuaren eta eskuragarri duten errentaren pisu metatuaren arteko erlazioa, formula honen arabera lortua:

$$G = |1 - \sum_{k=0}^{k=n-1} (X_{k+1} - X_k)(Y_{k+1} + Y_k)|$$

Osagaiak ondokoak izanik:

X: eragindako populazioaren proportzio metatua.

Y: errentaren edo diru-sarreraren proportzio metatua.

Koefizientearen balioa 0 eta 1 artekoa da: 0 erabateko berdintasun-egoera litzateke, eta 1, berriz, desberdintasun maximoko egoera. Datuak ehunekotan ematen dira.

PDGI, errentaren banaketarekiko hurbiltzea diru-sarrera baliokideei dagokienez egiten da, ELGA eskala zuzendutakoarekin bat.

c) Errenta osoko diru-sarreraren lehen dezilaren parte-hartzea

Adierazle honek jasotzen du, populazio osoa kontuan hartuta, %10 pobreena, ikertu den gizartearen sarrera baliokide osoari dagokionez.



AURKIBIDEA

0. Emaiza nagusien laburpena	3
1. Pobreziaren eta prekarietatearen eragin orokorra	15
1.1. Pobrezia eta prekarietatea mantenu-alorrean (errenta erabilgarria)	15
1.1.1. Pobrezia eta prekarietatea mantenu-alorrean (errenta erabilgarria)	15
1.1.1.1. Eurostat adierazleak	15
1.1.1.2. PGDI adierazleak	17
1.1.2. Gabeziaren adierazleak	18
1.1.3. Tartearen eta desberdintasunaren PGDI adierazleak	24
1.2. Pobrezia eta prekarietatea metatze-alorrean (ondarea eta epe luzeko bizi-baldintzak)	26
1.2.1. Metatze-pobreziaren PGDI adierazleak	26
1.2.2. Gabeziaren/metaketaren adierazleak	27
1.3. Benetako pobreziaren eta prekarietatearen adierazle sintetikoak	33
1.3.1. Alderdi orokorrak	33
1.3.2. DBE/EPO/GLL sistemen eragina	36
2. Arrisku-egoera larrienean dauden gizarte-taldeak eta guneak	43
2.1. 2012. eta 2014. urteen artean, pobreziaren eta prekarietatearen larriagotzea gehien nabaritu duten taldeak	43
2.2. Pobreziaren eta prekarietatearen lurralde eragina	62
3. Desberdintasun-adierazle nagusiak	67
4. Euskadiren egoera Europako testuinguruan	71
Eranskina: adierazleen eta definizioen glosarioa	75
1. Pobrezia eta prekarietatea mantenuari edo diru-sarrerei dagokienez	75
1.1. Definizioak	76
1.2. Mantenu-pobreziaren eta -prekarietatearen PGDI adierazleak	77
1.3. Mantenu-pobreziaren eta -prekarietatearen Eurostat adierazleak	78
1.4. Pobrezia- eta prekarietate-adierazleak tratatzeko erabilitako indizeak	79
1.5. Erabilitako sarrera kontzeptua	80
1.6. Gabetze-adierazleak	82
2. Metatze-pobrezia eta -prekarietatea (bizi-baldintzak eta erreserbako ondarea).	84
2.1. Definizioak	84
2.2. Metatze-pobreziaren eta -prekarietatearen PGDI adierazleak	85
3. Benetako pobrezia eta prekarietatea	89
3.1. Definizioak	89
3.2. Benetako pobreziaren PGDI adierazlea	89
4. Desberdintasun-adierazleak	92